

Elkartearen Aldizkari

Nº 21. 2025

- Editoriala
- Ekartea
- Literatura
- Iritzia
- Kontsumo
- Bidaiak
- Eskaintzak
ta gehiago

BBK_ ko Jubilatuen eta Pentsiodunen Ekartea

Principe kalea, 5. 505 saila • 48001 BILBO • Tel. 94 425 57 96 • asojubibbk@gmail.com • www.asojubibbk.es



Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

EDITORIALA

Lehen seihilekoa egitekotsua, jardueraz bete-betea izan dugu, baita berrikuntza garrantzitsuz ere.

Lehenik eta behin, Haziako ordezkaritza-karguetarako hauteskundeak izan genituen. Hautagaitza prestatu genuen eta gainerako sindikatuekin batera parte hartu genuen. Aipatu behar dugu Elkartek lan gogorra eta garrantzitsua egin zuela kolektiboari hauteskunde haiek gure BGAEaren etorkizunerako zuten garrantzia helarazteko eta parte hartzera motibatzeke.

Kontuan hartuta Haziako bazkide-kopuruan eta, beraz, boto-kopuruan dugun presentzia eta garrantzia lausotuz joango dela (dagoeneko nabaritzen da hori), gureak ez bezalako interesak dituzten beste bazkide batzuk sartzen ari baitira, hala ere, emaitza ona lortu zela esan dezakegu. Aurreko hauteskundeetan lortutako kargu guztiak errepikatu genituen, bai Batzarrean, bai Gobernu Batzordean eta Inbertsio Batzordean; eta horri esker, espero dugu gure ahotza entzunarazten jarraituko dugula gure BGAEaren gobernu onerako garrantzitsuak diren gaitetan.

Bestalde, badakizue aspalditik ari ginela errendimenduen tramendu fiskalari buruzko balizko erreklamazio bat prestatzen Haziako xedapen edo neurrietan. Zenbait kabinete juridikorekin kontsultatu dugu eta gaiari buruzko lege-txostenak eskatu ditugu. Lege-ekintzei ekiteko dena prest geneukanean, gure agintariek modu atseginean harritu gaituzte apirilaren 22an **2/2025 FORU ARAUA**, apirilaren 9koa, **Bizkaiko Lurralde Historikoko tributu-sistemaren berrikuspen fiskalerako neurriak** onartzen dituenak, Bizkaiko Aldizkari Ofizialean (75. zk.) argitaratu baitzen. Besteak beste, borondatezko gizarte-aurreikuspenari buruzko araudiaren erreforma sakona jorratzen da bertan, eta, beraz, **eragin nabarmena izango du horrek BGAEen zerga-araubidean.**

Arau horrek eragin positiboa izango du guretzat, eta dagoeneko jakinarazi eta eman dugu horren berri gure elkartekideen kolektiboan, baita arau horri buruz aurkeztu diren albiste eta berrikuntza guztiak ere. 26/01/01ean sartuko da indarrean, baina une honetan, oraindik, berari buruzko Erregelamendua noiz argitaratuko zain gaude, lege-testuari buruz sor dakizkigukeen zalantza eta galdera asko argitu eta/edo konpondu ditzake eta. Hori dela eta, Erregelamendu hori argitaratu arte itxarongo dugu, planteatutako zalantza eta kontsultei erantzun ahal izateko.

Argitaratzen denean, zuei jakinaraziko dizuegu, baita gaiari buruz aurkeztu den beste edozein berrikuntza interesgarri ere.

Udaldi ederraz goza dezazuen opa dizuegu, eta bueltan hemen elkartuko gara Elkartean.

Uda on!

EDITORIAL

Hemos tenido un primer semestre pleno de actividad y también de importantes novedades.

En primer lugar, tuvimos las elecciones a los cargos de representación de Hazi. Preparamos la candidatura y participamos con el resto de las agrupaciones sindicales. Tenemos que comentar que desde la Asociación se ha llevado a cabo un duro e importante trabajo para hacer llegar al colectivo la importancia que estas elecciones tienen para el futuro de nuestra E.P.S.V. y motivando a participar en las mismas.

Teniendo en cuenta que nuestra presencia e importancia en número de socios de Hazi y por tanto de votos, se va a ir diluyendo (de hecho ya se nota) por la entrada de nuevos socios con intereses un poco diferentes a los nuestros, a pesar de esto, podemos afirmar que se ha obtenido un buen resultado. Repetimos totalmente los cargos obtenidos en las anteriores elecciones, tanto en Asamblea como Junta de Gobierno y Comité de Inversiones, lo que esperamos nos permita seguir haciendo presente nuestra voz en los temas importantes para el buen gobierno de nuestra E.P.S.V.

Por otra parte, ya conocéis que llevábamos tiempo preparando una posible reclamación sobre el tratamiento fiscal de los rendimientos en las disposiciones de Hazi. Hemos consultado con varios gabinetes jurídicos y pedido informes legales sobre el asunto. Cuando ya lo teníamos preparado para iniciar acciones legales, nos han sorprendido gratamente nuestras autoridades con la publicación el pasado 22 de abril en el Boletín Oficial de Bizkaia nº 75 de la **NORMA FORAL 2/2025**, por la que se aprobaban medidas para la **revisión fiscal del sistema tributario del Territorio Histórico de Bizkaia**, tratando entre otras cuestiones la reforma en profundidad de la normativa sobre previsión social voluntaria y, por tanto, **afectando notablemente al régimen tributario de las EPSV.**

Esta norma que nos va a afectar positivamente, ya la hemos comunicado y distribuido a nuestro colectivo de asociadas y asociados, así como todas las noticias y novedades que sobre la misma se han ido presentando. Entrará en vigor el 01.01.26 pero todavía en estos momentos, estamos a la espera de la publicación del Reglamento sobre la misma, que puede aclarar y/o solucionar alguna de las muchas dudas y preguntas que sobre el texto legal se nos pueden presentar. Por esto vamos a esperar a la salida del citado Reglamento para poder dar respuesta a las dudas y consultas planteadas.

En cuanto se publique, lo pondremos en vuestro conocimiento, así como cualquier novedad de interés que sobre el tema se vaya presentando.

Esperamos disfrutéis de un estupendo periodo estival y a la vuelta, aquí en la Asociación nos encontraremos.

Buen verano.



Txangoa Sagardotegira

(2025-02-13)

23 urtarila, 2025 | por asojubi



Gure ohiturari jarraituz, otsailean sagardotegi batera joango gara.

Oraingo honetan, Legazpi aldean **Mirandaola burdinola, Burdinaren Euskal Museoa** eta **Chillida Lantokia** bisitatuko ditugu.

Hautatu dugun sagardotegia ezagutzen duzue jada: Zeraingo Oiharte sagardotegia.

Data: **2025eko otsailaren 13a, osteguna – LEGAZPI – ZERAINGO**

EGITARAUAREN XEHETASUNAK:

- 08:30** – Bilbotik irtengo gara
- 09:30** – Gosaria Aitxuri jatetxean.
- 10:00** – Burdinaren Euskal Museoa / Mirandaola burdinola / Mirandaolako kapera – A TALDEA.
- 10:00** – Chillida Lantokia / 1950eko eskola – B TALDEA.
- 12:00** – Burdinaren Euskal Museoa / Mirandaola burdinola / Mirandaolako kapera – B TALDEA.
- 12:00** – Chillida Lantokia / 1950eko eskola – A TALDEA.
- 13:30** – Mirandaolatik Zerainera abiatuko gara (guztiok).
- 14:00** – Bazkaria Oiharte sagardotegian.
- 17:00** – Zeraingo Aizpea meategietara –edo aukeratutako zerratokira– bisita, gehienez 50 laguneko TALDEA; gainerakoak sagardotegian geratuko dira.
- 18:30** – Zeraindik Bilbora irtengo gara.
- 19:30** – Bilbora iritsiko gara.

*GOSARIA: kafea, croissanta, salda eta pintxoak.

**SAGARDOTEGIKO MENU TRADIZIONALA: etxeko aperiti-boa, bakailao-tortilla, bakailao frijitua piperrekin, txuletoia txin-garretan erreta (txuleta bat hiru lagunentzat), gazta, irasagarra

eta intxaurrak. Ogia, ura, sagardoa (txotxean eta botilan) eta ardoa (gehienez 10 botila). Kafea.

PREZIOA: Parte-hartzaile bakoitzak 78 € (hirurogeita hemezortzi euro).

Prezioa merkatuta dago, **Bizkaiko Foru Aldundiaren** eskutik hainbat jarduera eta ekitalditarako jasotzen ditugun dirulaguntzei esker.

Izen-emateak beti bezala egingo ditugu; hau da, Elkartek BBKn irekita duen kontuan dirua sartuz.

Parte-hartzaile bakoitzak 78 € ordaindu beharko ditu (sartutako zenbatekoaren arabera jakingo dugu guztira zenbat pertsona izango garen). **Kontzeptuan, ordainketa egin duen afiliatuaren izena eta bi abizenak ipini, mesedez.**

Gogoan izan: «kontzeptua» atalean, izena eta bi abizenak ipini, behar bezala identifikatu ahal izateko.

Izena emateko epea 2025-02-09an amaituko da, edo parte-hartzaileak 110 izatera iristean.

OHARRA:

Jakinik Durango, Elorrio eta Gernika inguruetan bizi zareten elkartekide batzuek txangora joateko interesa duzuela baina Bilbora joan beharrik gabe, hauxe esan nahi dizuegu: zuen nahia posta elektronikoz adierazten badiguzue eta gutxieneko interesdun-kopuru bat badago, aztertu egingo dugu eskaera eta, hala badagokio, Durangon geldialdi bat egingo dugu, posta elektronikoz jakinaraziko dizuegun lekuan.

Prezioa eta ordaintzeko modua adierazitako berdinak izango dira.

Puntualtasuna eskatzen dizuegu, eta, azkenean ez joatea erabakitzeotan, garaiz jakinaraztea.



Bizkaia
foru alundia
diputación foral

Resultado elecciones de gobierno de hazia 2025

4 abril, 2025 | **por asociado**

Finalizado el recuento de votos, la candidatura de la Asociación de Jubilados ha vuelto a ganar, por tercera vez consecutiva, el proceso electoral.

Como primera e importante conclusión podemos decir que repetimos en el número de representantes por partícipes en cada uno de los apartados: 9 de 20 en la Asamblea, 4 de 9 en la Junta de Gobierno y 2 de 5 en el Comité de Inversión.

Si comparamos el resultado con el de hace 4 años podemos destacar:

– Ha aumentado el número total de voto en 231.

– Sin embargo, nuestra candidatura ha obtenido 60 votos menos


Desde esta Asociación nos comprometemos a seguir trabajando como siempre a favor de una EPSV fuerte, segura y rentable.

Además, continuaremos con nuestras actividades al mejor nivel intentando el difícil reto de mejorar los resultados en las próximas elecciones.

Bilbao, 03.04.2025

4

	votos en 2021	votos en 2025	REPRESENTANTES		
			Asamblea	Junta de Gobierno	Comité Inv.
ASOJUBI BBK	956	896	9	4	2
CC.OO	277	212	2	1	0
ELA	445	658	6	3	2
LAB	134	130	1	-	-
ALE	193	237	2	1	1
PIXKANAKA	-	113	-	-	-
ASPROBANK	59	49	-	-	-
TOTALES		2.295	20	9	5



EPSV y otros sistemas de previsión social

NUEVA NORMA FORAL- 2025 (Diputacion Foral de Bizkaia)

Aportaciones a EPSV y otros sistemas de previsión social




5

Novedad (con efectos desde el 1/01/2025)

- Dentro del **límite de 8,000 euros se Incluyen las aportaciones** efectuadas por socios y socias, partícipes, asegurados y aseguradas o mutualistas, sean estas aportaciones acordadas en negociación colectiva o resulten de una decisión de la persona trabajadora, otorgándose a las aportaciones acordadas en convenio el mismo tratamiento que se les otorga a las derivadas de una. decisión del trabajador.
- Se añade un nuevo límite de **4,000 euros anuales** para la suma de las aportaciones realizadas a sistemas de previsión social de empleo en los que las y los partícipes o socios y socias de número sean exclusivamente **personas trabajadoras por cuenta propia o autónomas**.
- Las aportaciones a EPSV de empleo que tengan la consideración de **preferentes**, podrán aplicarse, además de la **reducción** de la base, una **deducción** en la cuota según el porcentaje que suponga la aportación respecto a su salario bruto anual. o en cualquier caso si el contribuyente **es** menor a 36 años. Si no pueden aplicar la deducción porque **no tienen suficiente cuota**, puedes trasladarla a las declaraciones los **cinco años inmediatos y sucesivos** al período impositivo del que procedan. Deben respetar los límites y condiciones originales de la deducción., y siempre dentro del plazo máximo establecido.

APORTACIONES A EPSV Y OTROS SISTEMAS DE PREVISIÓN SOCIAL



Prestaciones de EPSV y otros sistemas de previsión social

Novedad (entrará en vigor el 01/01/2026)

PRESTACIÓN A EPSVS Y OTROS SISTEMAS DE PREVISIÓN SOCIAL

Novedad (entrará en vigor el 01/01/2026)

Se debe distinguir la tributación de la rentabilidad obtenida de la correspondiente a la propia aportación o contribución

- **La parte que corresponda con la rentabilidad obtenida:**

- Estará exenta si se percibe en forma de renta vitalicia o como una renta por un periodo superior a 15 años y una cuantía constante (salvo alteraciones en la cuantía por motivos técnicos o financieros).
- Tributará como rendimiento de capital mobiliario en el resto de casos (rescate en forma de capital o de renta que no cumpla las condiciones anteriores).


- **La parte que corresponde con la propia aportación o contribución:**

- Tributará como un rendimiento de trabajo personal
- Si se percibe en forma de renta: tributará al 100%
- Si se percibe en forma de capital: la posibilidad de integración pasa al 70% en la primera prestación obtenida por cada contingencia. El porcentaje de integración del 70 por 100 sólo puede aplicarse sobre un máximo de 300.000 euros anuales. De cara al cómputo de este límite, se deben tener en cuenta el conjunto de las cantidades derivadas de sus sistemas de previsión social y de los seguros colectivos que instrumentan compromisos por pensiones de los empleadores, de los que pueda resultar beneficiario, límites y condiciones originales de la deducción, y siempre dentro del plazo máximo establecido.

Puede aplicarse la normativa vigente a 31 de diciembre de 2025 a la parte de las prestaciones percibidas en forma de capital vinculadas a las aportaciones y contribuciones empresariales realizadas con anterioridad al 1 de enero de 2026.

7

Al rescatar una EPSV u otros sistemas de previsión social. A partir de 2026





RESUMEN DE LA ASAMBLEA GENERAL (25-03-2025)

31 marzo, 2025 | por asojubi



8

- Hasta alcanzar la Fecha de Mejor Jubilación del socio/a, se ha aplicado un incremento del **1,75%** (igual que para el personal en activo de Kutxabank, según convenio).
- A partir de la Fecha de Mejor Jubilación del socio/a, el **2%** (éste es un % que según acuerdo en convenio).

Seguidamente, Miguel Lafuente pasa a desarrollar el punto 2 del Orden del día

2.- HAZIA. Memoria Ejercicio 2024

Miguel Lafuente, representante de la Asociación en el Comité de Inversiones de HAZIA, presenta la siguiente información relativa al ejercicio 2024.

- Comenta que la rentabilidad de la EPSV en 2024 ha sido del 4,57%, con la siguiente distribución por Activos:
 - Renta Fija + Tesorería 2,05%
 - Inversiones Alternativas 0,15%
 - Renta Variable 2,74%
 - Coberturas **-0,38%**
- La rentabilidad de HAZIA en 2024 ha quedado un 1 % por encima de la inflación.
- La rentabilidad anualizada de HAZIA desde su inicio en 1990 (hace ya 34 años) es del 6,41% frente al 2,82% del IPC acumulado del País Vasco en el mismo periodo.
- La distribución de los Activos a cierre de 2024 es la siguiente,
 - Renta Fija + Tesorería 68,1%
 - Renta Variable 24,6%
 - Inversiones Alternativas 7,3%
- A cierre de 2024 la Renta Fija presenta una duración media de la cartera de 54 meses.
- la calidad crediticia de nuestra cartera de Renta Fija es muy elevada ya que las posiciones por debajo del Grado de Inversión (Rating BBB-) o sin Rating representan sólo el 0,4% del Patrimonio
- En cuanto al conjunta de la Renta Variable, su distribución al cierre de 2024 es la siguiente:
 - la R.V. Europea representa el 49 %
 - la R.V. en bolsa EE.UU representa el 30 %
 - la R.V. en bolsa Japón se mantiene en el 10 %
 - la R.V. en Bolsas Emergentes representa el 11 %

En perspectivas para 2025, Miguel Lafuente, expone que

- en base a las previsiones realizadas en diciembre de 2024, para una subida de los índices de Renta Variable del 6,5 %, se podría estimar una rentabilidad de HAZIA entre el 3,60 %.
- A primeros de año 2025 se ha contratado una nueva cobertura que busca amortiguar las posibles pérdidas que se producirían si las bolsas caen en el año entre un 10,8 % y un 49,6 % aproximadamente, utilizando una estructura de derivados cuya pérdida máxima posible está limitada a su coste inicial que supuso un 0,31% del patrimonio. Con fecha 24 de marzo se ha ampliado la cobertura con un coste adicional de 0,06 % del patrimonio.
- Para 2025 queda un margen para invertir en Renta Variable de un 3,15% del patrimonio, aunque se esperará a una coyuntura de mercado adecuada, mientras que en Inversiones Alternativas no hay previsto hacer nada, salvo atender compromisos de disposición

El número de personas que a diciembre de 2024 integran HAZIA es de 3.514

- de las que 3.314 son socias y socios ordinarios (activos, pasivos, en suspenso) y
- 200 corresponden a socias y socios beneficiarios,

de las 3.314 socias y socios ordinarios,

- 1.207 corresponden a HAZIA 1 y
- 2.107 a HAZIA 2

Las personas asistentes se dan por enteradas.

Seguidamente José Antonio Díez pasa a desarrollar los puntos 3 y 4 del Orden del día

3.- Presentación y aprobación, en su caso, de las cuentas del año 2024, comprensivas de los ingresos, gastos e inversiones de dicho Ejercicio.

El vicepresidente, José Antonio Díez expone los datos económicos del pasado año, que se ha cerrado con un resultado deudor de 2.557,83 € en el ejercicio. Este resultado deudor es inferior a los datos presupuestados para el ejercicio que preveían un resultado negativo de 5.738,36 €.

Se aprueba por unanimidad de presentes y representados, las cuentas del año 2024

Se expone también la evolución de altas y bajas de socios, que se ha incrementado en el año 2024 con 32 altas, habiéndose producido 27 bajas (25 por fallecimiento y 2 bajas voluntarias). A 31 de diciembre de 2024, la Asociación cuenta con un total de 1.454 personas asociadas.

4.- Presentación y aprobación, en su caso, del presupuesto de ingresos, gastos de la Asociación para el año 2025

José Antonio Díez expone el Presupuesto para el año 2025, con unos gastos previstos de 35.237,64 € y unos ingresos de 23.900 €. Destaca una partida de 11.000 € presupuestada para "gastos elecciones HAZIA".

Se presenta por tanto un presupuesto con un déficit en 11.337,64 € que se asume en base a la muy buena situación financiera.

Se aprueba por unanimidad de las personas presentes y representadas el presupuesto de ingresos y gastos presentado para el año 2025.

Seguidamente Angela Jaular, pasa a desarrollar el punto 5 del Orden del día

5.- Presentación del Informe de actividades de la Asociación en el año 2024 y propuesta de actividades para el año 2025

Expone Angela las acciones realizadas en el año 2024, en el que se han realizado un total de 17 actividades, entre viajes, eventos, concursos y ofertas, con una participación total de 1.393 compañeras y compañeros, destacando como actividades con mayor participación la celebración de la Asamblea General, Excursión a Sidrería, Oferta de naranjas en invierno, Concurso de fotografía y Comida de la Asociación.

Esboza asimismo los proyectos previstos para el año 2025, informando que se mantiene un año más el acuerdo de colaboración con la Unión de Consumidores de Euskadi (UCE) debido a que año tras año mantiene una buena utilización por socias y socios y con un buen grado de satisfacción.

En lo referente a excursiones y viajes, además de los ya realizados o planificados:

- Excursión sidrería febrero
- Subida a Pagasarri mayo

expone:

- diversas ofertas de viaje que se están concretando con las agencias de viaje
- alguna excursión de organización propia de la Asociación
- alguna visita museística acogiéndonos al Programa MUSEOAK BARRUTIK de la Diputación Foral de Bizkaia

Asistentes y asistentes se dan por enterados y validan el plan general de actividades de la Asociación.

Iñaki Palomar expone el punto 6 del Orden del día

6.- Propuesta de aprobación a la gestión de la Junta Directiva en 2024, así como propuesta de incorporación de un miembro a la actual Junta Directiva.

En cumplimiento con lo que se recoge en el artículo 7_C de los vigentes Estatutos se presenta para su aprobación la gestión de la Junta Directiva correspondiente al año 2024

Se aprueba por unanimidad de los presentes y representados la gestión en su conjunto de la Junta Directiva.

En cumplimiento con lo que se recoge en el artículo 16 de los vigentes Estatutos se propone la incorporación del socio JOSE LUIS AGUIRRE ECHEVARRIA a la actual Junta Directiva.

Se aprueba por unanimidad la incorporación JOSE LUIS AGUIRRE ECHEVARRIA a la actual Junta Directiva.

Se recuerda que la actual Junta Directiva resultó elegida en 2021 y reelegida en 2024, por lo que en principio estará vigente hasta el año 2027.

7 – HAZIA – Proyectos Forales de reforma fiscal

El presidente Txema Múgica hace referencia a la preocupación expresada en las últimas Asambleas por el tratamiento fiscal existente en los rescates de EPSVs y Planes de Pensiones, así como a las posibles intervenciones legales que ya desde la anterior Junta Directiva se han venido analizando y que en el año 2024 se concretó con la solicitud a un bufete experimentado en pleitos en Europa, de un informe detallado con los posibles argumentos jurídicos que pudieran justificar el inicio de acciones y/o reclamaciones legales; reclamaciones o demandas que siempre serían a título individual. Finalmente están siendo las propias Instituciones Fiscales Recaudadoras, en el caso de Euskadi las Diputaciones Forales quienes están a punto de aprobar una nueva Reforma Fiscal Foral en la que se viene a modificar la fiscalidad para los rescates de las EPSVs.

El asesor Fiscal Sr. Calonge, invitado por el Presidente a la Asamblea hace una amplia exposición sobre el efecto que esta nueva Norma Fiscal Foral tendrá en los rescates de las EPSVs a partir del momento de su aprobación y entrada en vigor.

Hay varias consultas que son respondidas por el Sr. Calonge y las personas asistentes se dan por enteradas.

8 – HAZIA – Elecciones 2025

El presidente Txema Múgica expone la importancia de las elecciones de HAZIA que serán el 3 de abril y pide el apoyo mayoritario de socias y socios a la Candidatura Asojubi BBK, para intentar mejorar los resultados de 2021

ACTA DE LA ASAMBLEA GENERAL ORDINARIA DE LA ASOCIACIÓN DE PERSONAS JUBILADAS Y PENSIONISTAS DE BILBAO BIZKAIA KUTXA

En Bilbao, el día 25 de marzo de 2025, a las 10:30 horas, debidamente convocada, en segunda convocatoria, se reúne la Asamblea General Ordinaria de la Asociación, con la asistencia de 120 socias y socios presentes (101 en 2024 y 94 en 2023), así como otras 231 (168 en 2024 y 155 en 2023) delegaciones de representación y voto recibidas en el correo electrónico de la Asociación y en papel.

El presidente de la Asociación, Txema Múgica da la bienvenida y agradece la asistencia de los presentes, así como también las delegaciones de voto recibidas; se tiene un recuerdo para aquellas personas asociadas que nos han dejado en este último año. Expresa asimismo su agradecimiento a la Fundación BBK por posibilitar la realización de esta Asamblea en el Bizkaia Aretoa - Paraninfo de la UPV.

A continuación, se concede la palabra al socio Luis Matesanz, para que exponga el punto 1 del Orden del día

1 – Informe situación GAUZATU.

Luis Matesanz como representante en la Junta de Gauzatu presenta la siguiente información relativa al ejercicio 2024.

- La rentabilidad de Gauzatu en el ejercicio 2024 ha sido el 4,09 %. (4,05% el año 2022)
- El Patrimonio de Gauzatu está compuesto exclusivamente por Renta Fija y Tesorería
- La vida media de la Cartera de Renta Fija a diciembre de 2024 es de 51 meses y con un tipo de interés efectivo medio del 4,41%
- El número de personas que a diciembre de 2024 integran Gauzatu es de 342 (descenso de 20 respecto a 2023), de las que 78 son socias y socios (descenso de 8 respecto a 2023) y 264 beneficiarios (descenso de 12 respecto a 2023). En 2024 hubo 1 incorporación a Gauzatu de persona activa de Kutxabank afectadas por incapacidad.

- Revalorizaciones de los complementos o pensiones para 2025 (según se recoge en el artículo 16 de los Estatutos)

Como es sabido GAUZATU está formado por 3 colectivos:

1. A los dos primeros colectivos, es decir, que no provienen de socio/as de HAZIA, se aplicará una revalorización del **2,38%** (=85% del IPC estatal 2024 que fue del 2,8%).
2. En cuanto al tercer colectivo, es decir, socias y socios pasivos a partir del 31/07/1996 provenientes de HAZIA – BBK EPSV de Empleo o sus personas beneficiarias, hay que diferenciar 2 tramos:

9.- Ruegos y Preguntas

Consultas diversas que son atendidas por miembros de la Junta.

10.- Redacción, lectura y aprobación, en su caso, del acta de la Asamblea.

Se procede a la redacción del acta de esta Asamblea, se lee y es aprobada por unanimidad de los presentes y representados.

Firma esta acta el secretario con el Visto Bueno del presidente

En Bilbao a 25 de marzo de 2025

VºBº : El presidente

El secretario

Gutunak hilerrian

Lehenengo zatia

Leopoldok mutiko bihurria izatearen aurpegia zuen. Bere larrual beltzaranean, begi beltz garden geldiezinak nabarmentzen ziren, eta beira behatzaile haien kolorekoak zituen ile nahasiak, eta ia distira berekoak. Ipurtarina zen hamabi urteko mutikoa, eta, bere irisaren beltzean, kontu handiz gordetzen zuen mundu baten misterioa sumatu zitekeen. Inork zerbait galdetzen zionean, bere aurpegia erabat argitzen zuen irribarrea eskaintzen zuen, sentimenduak ez erakustearren.

Igande eguerdia zen. Bero egiten zuen arren, hodeiek ez zieten eguzki-izpiei ingurunea marrazten uzten. Jende gutxi zebilen ka-lean; etxean zeuden gehienak, familiarekin bazkaltzen.

Leopoldo arkupeen artean korrika atera zen; plaza zeharkatu, eta hilerri-rako bidea hartu zuen. Begiak itzuli gabe igo zuen kanposantuko bide estua, urrutian amaren oihuak entzuten ziren arren, berari deika. Nitxoan artean barneratu, eta hilobirik ezkutatua bilatu zuen. Bazter batean, belar gaiztoek ia guztiz estalita, lauza bat apurtuta eta burualdea hondatuta zeuzkala, panteoi bat zegoen kanposantua ixten zuen paretaren ondoan. Han, hormaren eta hilobiaren artean, mutikoak gorde egin zuen bere gorputz txikia, eta iratzeen atzean ezkutatuta geratu zen.

6 urtarrila, 2025 | por Fernando Urien

Kristal beltzezko bere begietatik larritasun-tantak irten, eta belauenen eta besoen artean gordetzen zuen ikazkin-aurpegitxotik behera arrastatu ziren. Haize kirriak astindutako zuhaitz-adarren soinuak estali egiten zuen haren negar-zotina; hala, bertako isiltasunak desagerrarazi egin zuen mutikoa, ezkutalekua eta babesa emanez.

Egun hartan aita ez zen bazkaltzera joan; ama eta bera bakarrik egon ziren. Ezin zuen jasan familia lehen bezala elkarrekin ez ego- tea. Bere gurasoak banandu egin ziren. Amak esan zion helduen kontuak zirela, jada ezin zutela elkarrekin bizitzen jarraitu, nahi zuenean ikus zezakeela aita... baina edo aita edo ama bakarrik.

Begi beltz haien atzean, erruduntasun-oroitzenak hasi ziren piz- ten. Hondamendia berak eragina zela sentitzen zuen mutikoak: ez zuen hartu nahi izan aita jateko agindu zion zopa hura, eta amak kendu egin zion platera, mutila ez zegoela zertan behartu esanez; aldi hartan, oiuhu egin zuten eta haserretu egin ziren. Bizikletarekin errepidean behera ziztu bizian jaitsi zenekoa ere gogoratu zuen; amak kendu egin zion bizikleta, eta aita eraman egin behar zue- la esaten zuen. Bere erruagatik eztabaidatzen zuten beti; dena gaizki egiten zuen. Hartu egin behar zuen zopa hura, eta kontu handiagorekin jaitsi behar zuen bizikletaz. Hainbeste ziren ondo egin behar zituen gauzak, eta hainbeste ziren gaizki egin zitue- nak. Eztabaidan imajinatzen zituen bere gurasoak; elkarri egiten zizkioten gaitzespenen artean, mutikoak egindako zerbait egoten zen beti. Gauez, ohean sartzen zenean, batzuetan itxi egiten zuten atea, baina, hala ere, entzuten zituen sukaldetik zetozen garrasiak. Traidorea zen logelako iluntasuna; piztu egiten zuen haurraren iru- dimena eta lan betean jartzen zuen haren garuna, halako liskarra berak egindako zerk eragin zuen asmatu nahirik. Beti aurkitzen zuen bere burutxoan kezka eragiten zuen zerbait, bere ametsak asaldatzen zituen eta gauak desagerrarazten ez zuen nekea era- giten ziona.

Ur-tanta gutxi batzuk erori ziren. Jada urruti entzuten ziren mu- tikoari dei egiten zioten oihuak; itsasoko olatuen oihartzunek eta zurrumurruak estali egiten zituzten ia. Haurra ez zen gai bere izena airean aditzeko, ezta itsasoko olatuak, haizearen soinua eta euritik

babesten ziren txorien kantua entzuteko ere; bere pentsamenduen oihartzunak bakarrik entzun zitzakeen, bere etxeko zorigaitzaren errua behin eta berriz berari egozten ziotela, suzko labanak balira bezala. Hainbeste estutu zitzaion urdaila, non oka ere egingo baitzuen, goiz hartan ezer jan izan balu. Iratze-adaxka batek kilimak egiten zizkion mutikoari lepoaldean, eta, eskuarekin baztertzera zihoala, zerbait erori zitzaion bizkarretik behera. Gutun bat zen. Harrituta, jertsearen mahukaz bere masail hezea lehortu, eta eskuetan hartu zuen gutun-azal bitxi hura.

Itxita zegoen gutun-azala, eta bi hitz baino ez zeuzkan idatzita: nire aitarentzat. Jakin-mina piztu zitzaion mutikoari, eta pixkanaka, gutun-azala irekitzen hasi zen, barruan zer zeukan ikusteko. Letra argiz zegoenez idatzita, zailtasun handirik gabe hasi zen irakurtzen. Gutunak honela zioen:

Oraindik ere nabaritu dezaket, zure hilobia estaltzen duen lauzaren pitzaduren artean, hilkutxan zure gorpuari darion alkohol-usaina; ez dakit deskonposatuta dagoelako edo deskonposatzen ari delako duen halako usaina, edota egoera horretan egotearen ondorioa den. Izan ere, bertan, alkoholetik kanpo, beharbada ez da geratzen urtetan benetako nazka eman didan irudi ez-segurua, oldarkor eta gorrixka bat besterik. Gezurretan ariko nintzateke zure heriotza sentitzen dudala esango banu. Garondoaren eta kopetaren artean daukadan hutsunean gordeta dauzkadan oroitzapenen artean bila ibili arren, ia ezinezkoa zait zurekin emandako une gogoangarriren bat aurkitzea... Bueno... esan dezadan egia; badago, bai.

Nire oroitzapenik onenak txikitakoak dira, zuk esku handi indartsu horiekin besarkatzen ninduzunekoak. Gogoan dut azal gogorrekoak zenituela esku-ahurra, eta beltzaxkak zeneuzkala zartadurak, konpontzen zenituen autoen koi-peagatik. Zuri esku haiek latsa ematen zizuten arren, zakarrak zirelako eta, zikina kentzen saiatu arren, garbiak ez zeudelako, ez ziren bulegari dotore harro haienak bezalakoak. Niretzat, munduko eskurik indartsuenak ziren; iltze batek ere ezin zuen azal hori zeharkatu. Seguru sentitzen nintzen haien artean. Xafla bat hatzen artean bihurritzeko gai zinela esaten nien nire lagunei, eta, auto bat ikusten nuen bakoitzean, zuk halakoak konpontzen zenekiela esaten nien behin eta berriz. Gustatzen zitzaidan musu eman eta lo hartzen nuen arte nirekin nola geratzen zinen. Zurekin, mamuak izutzen ziren, eta iluntasunak lorategi bat ematen zuen. Baina aspaldiko kontuak dira horiek...

Errua alkoholak izan zuela esaten dute; ez dakit. Baina norberak erabakitzen du, bere borondatez, hartu edo utzi, eta zuk hartu egin zenuen. Ondo hartu ere! Ikaragarri pila, gainera. Ez dakit noiz eman zenion edateari, baina ia gaueko oinekin estropezu eginez eta paretak kolpatuz iristen zinen etxera, arratoiak ere beldurtzen zituen eskandalua sortuz. Ozen, hitz ulertezinak esaten zenituen, zure mingaina makal bihurritzen baitzen hortzen artean. Zure begiak desitxuratuta egoten ziren beren barrunbeetan, eta, batzuetan, astakirten batek bezala oihukatzen zenion nire amari... Ezingo dizut barkatu!

Gauza batzuk hil arte izango ditut gogoan iltzatuta. Gogoan dut otsaileko gau hartan hotz egiten zuela, eta hurrengo egunean, ohi bezala, eskolara joan behar nuela. Goiz oheratu nintzen. Amak lagundu zidan, zu ez baitzinen inoiz egoten; tabernaz taberna ibiltzen zinen, lagunekin,

alkohola edan eta edan. Gau hartan, beste guztietan bezala, kostatu egin zitzaizun atea zabaltzea; giltzarekin ezin asmatu ibili zinen. Azkenean, gure zoritxarrerako, etxean sartzea lortu zenuen. Estropezu egin zenuen zeure oinekin, eta hormetara eutsi zinen, ez erortzeko, garrasi uler-tezin zaratatsuak boteaz. Ez ninduzun esnatu; esna nengoen. Beldurra ematen zidan lo hartzeak eta zure oihuekin izututa esnatzeak. Zure aho nazkagarritik lerdea nola erortzen zen entzun nuen, eta ama nola heldu zenuen. Hormaren aurkako kolpe batzuen osteko isiltasunak altzarazi egin ninduen ohetik. Ikusi zintudan; ezin izango dut sekula ahaztu: nire amaren burua sukaldeko baldosen kontra kolpatzen ikusi zintudan. Atean ikusi ninduzunean, gelditu egin zinen. Nire ama haurdun zegoen, eta zuk bazenekien; nola ez zenuen jakingo. Ume bat nintzen ni, eta jabetzen nintzen. Amak ohera joateko esan zidan, eta kasu egin nion. Gau hartan, isiltasun beldurgarria egon zen etxean; paretak lainotu egin ziren iluntasunean, eta nire pentsamenduak malkoz, inpotentziaz eta amorruez bete ziren. Ezin izango dizut sekula barkatu. Gaur, zure hilobian jaurtitzen ditut nire haurtzaroko amorruek. Infernuan sinesten ez badut ere, nahiago nuke existituko balitz, zu bertan etengabe usteldu zaitezzen.

Gertaera haren ondoren, amak galdu egin zuen sabelean zeraman umea, eta nik haurtzaroa galdu nuen. Ordutik aurrera, gauzak ez ziren inoiz lehen bezalakoak izan. Nire munduaren zati handi bat, zu zeu, hondoratu egin zen, eta bihotzak ematen zidan indar guztiarekin arbuizatzen hasi nintzen, irudimenak behin eta berriz esaten baitzidan ez zenuela nire ama gau hartan bakarrik kolpatu. Aita higuin-garri eta gorrotagarri baten irudia taxutu zenuen nire gar-runean.

Ez dakit ama negarrez inoiz ikusi zenuen, edota ez zitzazun batere axola amak negar egitea. Gogoan dut arratsalde batean, eskolatik etxera iristean, negar-zotinak entzun nituela zuen logelan; ama lurrean belauniko zegoen, burua ohazalean bermatuta, negar batean. Beregan hurbildu, eta kontsolatzen saiatu nintzen, baina ezin izan nuen; hain zen sakona bere negar-zotinei zerien tristura, non nik ere negarrari eman nion. Nire malkoek bat egin zuten bere malkoekin. Berak, bitartean, esaten zidan: "Egizu negar, egizu, malkoek barrua lasaitzen dute-eta". Ez dakit zergatik egin nuen negar, eta ez dakit berak zergatik egin zuen negar; dakidan bakarra da malkoz, iluntasunez eta tristuraz bete genuela gela. Orain, uste dut pairatzen zuen depresioak eragin ziola min hura. Burua galdu zuen, bai; bere neuronak ez ziren gai izan senarraren tratu txarrak eta sabelean zeraman haurraren galera jasateko. Erotuta balego bezala tratatu zenuen; pilulez ito eta gutxietsi egin zenuen, nahiz eta zu izan bere eromenaren eragilea, depresioaren zuloan erorarazi zuena, alkohol-kolpeekin gure bizitza mingostu zuena.

Ez espero izan errukirik nire partetik, ez baituzu izango. Hor behean usteldu zaitezela besterik ez dut nahi, betirako alkohol-usain jasangaitza izango duen hilobi ziztrin pitzatu horren barruan. Ez espero izan nire bisitarik; ez dut zure kiratsa jasaten.



20 urtarila, 2025 | por Fernando Urien

Gutunak hilerrian

Aitaren gutuna

Irakurri ondoren, oharkabea hatzen artetik erortzen utzi zuen gutuna Leopoldok. Sinetsita zegoen bere aita ez zela idazki hartako gizona bezalakoa. Bere aitak ez zuen inoiz bere ama jipoitu, eta sekula ez zen mozkortuta etxeratu. Hala ere, zenbaitetan, logelan bakarrik zegoela, entzun izan zuen aita garasika. Baina inoiz ez zuen ama jipoitu; ziur zegoen horretaz. Ez zuen pentsatu nahi, ezta une batez ere, bere aitak inolako antzekotasunik zuenik gutun haren egilearekin. Hala ere, barru-barrutik, aitaren asmo onak zalantzan jartzea hasia zen.

Mutilari deika zebiltzanen deiadarrak gero eta hurbilago entzuten ziren. Ikusiko zuten beldur, sasien, hormaren eta hilobiaren artean ezkutatu zen. Eta han geldi-geldirik geratu zen, jende guztia igaro arte. Ahotsak urruntzen hasi zirenean, luzatu egin zen pixka bat, eta mozkorraren hilobi pitzatua ikusi zuen. Gutunari zerion usain bitxia nondik zetorren jakin nahirik, burua luzatu eta pixka batean usnatu egin zuen airea; baina hango usaina ez zen alkoholarena, belar bustiarena baizik. Hobeto usaintzearen eta irakurri berri zuena berresteko asmoz, sudurra pitzadurara gerturatu zuen. Ez zuen ezer usaindu, baina lauzaren arrakalen artean beste gutun bat harrapatuta zegoela ohartu zen. Lasto baten laguntzarekin pitzadura arakatu, eta bilgarri hura ateratzea lortu zuen. Ohar bat zeukan barruan:

“Ez naute harritzen zure hitzek, seme maite, nahiz eta min ematen didan haiek entzuteak. Errudun sentitzen naiz hainbeste zoritxar ikusteko eta hainbeste min jasateko jaioarazi zaitudalako. Nik ez nuen zuk sufritzerik nahi, ez zuk, eta ez hainbeste maitatu dudana eta oraindik ere maite dudana zure amak. Burutik kendu ezinik darabilzun alkohol-usaina nahigabeen lurrina da, ez sentimenduena. Zaila da patuaren zartakoak ekiditea, eta are zailagoa bata bestearen atzetik datozenean pairatzea, norberaren barru-barruan behin eta berriro kolpatzen dutenean. Egin nuenak zuribiderik ez duen arren, utz iezadazu, behintzat, ene

seme, nire bizitzaren labirintoaren ibilbidea eta nire patuaren zoritxarra azaltzen.

Berak ni begiz jo baino askoz lehenago ezagutu nuen zure ama. Ikusi behar zenuen, seme, nire aitaren tailerraren paretik besapean liburuak hartuta paseatzen, bere ilea haizearekin jolasean, ezpain gorri horietan irribarrea etengabe zuela, ikasle-aurpegiarekin eta nire begiradak atzetik jarraitzen zuen eta nire pentsamenduak liluratzen zituen emakume-gorputz harekin.

Egun batean, konpontzen ari nintzen auto baten azpitik irteten ari nintzela, handik igaro zen; ezin hobeto ikusi nizekion zango-sagarra, eta, ziztu bizian, eskuekin gorputzera estutu zuen gona. Zorutik, gora zuzendu nituen begiak, bere aurpegia bilatu nahian, eta berak begiratu egin zidan. Ez dakit zer itxura neukan; ez dakit ibilgailuaren koipea, nire begien urduritasuna edota aurpegian nabaritzen nuen berotasuna zen, baina barrez hasi zen. Oraindik ere entzun ditzaket bere algarak.

Gehiagotan igaro zen tailerraren paretik, eta gure begiradak gero eta ausarkeria handiagoarekin gurutzatzen ziren. Pixkanaka-pixkanaka, lotsa galtzen joan ginen, eta azken aldiaren oroitzapena eta hurrengo aldia iristeko nahia izaten hasi. Arratsalde batean, zinemara gonbidatu nuen, eta berak baiezkoa eman zidan.

Nire esku zakar koipetsu baldarrei begira egoten zen, nik ezkutatu arren. Berak irribarre egiten zuen, eta bere hatzekin jolastu egiten zen nire esku-haur zikineta kailuen artean. Arima osoarekin maitatu nuen eta oraindik ere maite dut; ez daukat erremediorik. Maite ninduen, edo, behintzat, hala sinetsarazi zidan gure maitasunak hasieratik izan zituen arazoan aurrean hartu zuen jarrerak, gure harremanak zorigaiztokoa izatera bideratuta baitzirudien. Bere amak ez gintuen elkarrekin ikusi nahi; ez zuen bere alaba arlote batekin ibiltzerik nahi; sendagile bat, notario bat, eskribau bat, abokatu bat nahi zuen alabarentzat, ez azazkaletan koipea eta eskuetan kailuak zeuzkan behargin miserable bat. Behin baino gehiagotan egin zion aurre zure amak zure amonari, eta sutsuki defendatu ninduen, gure arteko harremana debekatzen zioten arauak desobedituz. Imaginatu zein harro sentitzen nintzen eta zer-nolako grina pizten zen nire bihotzean nola maite ninduen ikustean.

Igande batean, nire aitaren tailerrera eraman nuen. Jaieguna zenez, itxita zegoen. Gu biok bakarrik egon ginen, hizketan, musukatzen... “Milkinientos”aren atzeko eserlekuan gure arteko erakarmena askatu eta inork imaginatu ere ezingo lukeen moduan gozatu genuen gure maite-suaz. Gutun hau idazten ari natzailun bitartean, berpizten ari zait une hura nire baitan, bizitza osoan zehar behin eta berriz gertatu zaidan bezala.

Abentura hark pasio neurrigabe baten oroitzapena baino zerbait gehiago ekarri zuen: zure ama haurdun geratu zen. Bere sendiak ez zuen haurdunaldi hura onartu, eta nirekin harremanak eteteko eskatu zion; ikusiko zuten gero haurrarekin zer egin. Baina bera nirekin geratu zen. Seat haren atzeko eserlekuetan sortutako haurra eduki eta gure harremanarekin jarraitu nahi zuen.

Ezkundu egin ginen, eta txapitula batera joan ginen bizitzera. Gero, zu jaio zinen. Ziurtatzen dizut egun hartan inoiz baino gehiago gorrotatu zintudala. Ez zen erditze erraza izan. Zure ama arriskuan zegoen, eta zesarea egin behar izan zioten zu jaiotzeko. Zu ondo zeunden, baina zure ama ez, eta nik behin eta berriz esaten nion neure buruari haurdun geratu izan ez balitz ez zela arazorik egongo. Hiru egun behar izan zituen arriskutik ateratzeko; gero, dena ederra izatera itzuli zen. Asko maite zintuen. Nik ere bai. Arazoak saihesteko, basektomia egitea erabaki nuen, baina berari ez nion ezer esan, ez baitzidan halakorik eskatu ere egin.

Etxebizitza berri bat erosi genuen; hain zuzen ere, zuk bizitza osoan ezagutu duzuna. Bizitzera joan ginen auzo hartan, beste familia-mediku bat egokitu zitzaigun. Itxura oneko mutil gazte altu bat zen.

Niri sekula ez zaizkit sendagileak gustatu; horregatik, denbora dezente igaro zen nik ezagutu nuen arte. Zure ama nahiko gaixo zegoen egun batean izan zen; sukarrarekin zegoen eta eztulka zebilen. Sendagileari deitu nion, ikustera etor zedin. Nik espero ez bezalako konfiantza zegoen haien artean. Bere bularra estetoskopioarekin auskultatzen hasi zenean, zure amak irribarre egin zion, eta sendagileak gustatu ez zitzaidan poztasun-begirada batekin erantzun zion keinu horri. Ez dakit haien artean zer zegoen, baina ordura arte sekula izan ez nuen sentimendu bat garatzen hasi zen nire irudimena: jeloskortasuna.

Orduko hartan bakarrik ez; gehiagotan ere sumatu nituen haien artean begirada konplizeak, irribarre adeitsuak eta mediku batekin izan zitezkeenik uste ez nuen konfiantza-keinuak.

Zer egin behar nuen nik, seme! Luze eta mehea zen sendagilea; txiki eta burusoila nintzen ni. Hatz luzeko esku finak zituen; lodi eta kailutsuak nik. Gizon errespetagarria zen, tituluduna; ni, berriz, hutsala, batuketa bat egiteko ere ia ezgauza. Guztiz baztertua sentitzen nintzen.

Nire baitan, isekan sumatzen nuen inguruko jende guztia. Nik susmo soilak neuzkan arren, iruditzen zitzaidan topatzen nituen guztiek ezin hobeto zekitela emazteak adarrak jartzen zizkidala.

Zure amak gero eta kasu gutxiago egiten zidan, eta, askotan, uko egiten zien nire laztaneij, bizkarra ema-

nez. Edateari eman nion, konturatzen bainintzen zure amak niri ukatzen zizkidan harremanez gozatzen zuela etxetik kanpo, edo beharbada gure etxean bertan; ez dakit, ez dut imajinatu ere egin nahi. Pixkanaka-pixkanaka, gehiagotan hasi nintzen lagunekin eta alkoholarekin egoten, hurbiltzen nintzen bakoitzean beste aldera begiratzen zuen eta behin gorroto nuen sendagile batekin ikusi nuen emakumearekin baino...

Denbora luze bat harremanak izan gabe igaro ondoren, amodioa egin genuen. Gure artekoa bere onera itzultzen hasiko zela pentsatu nuen, baina, hilabete luze baten buruan, gure harreman hark haurdun utzi zuela esan zidan zure amak. Ez nuen ezer erantzun; kalera irten nintzen, eta inoiz ez bezala mozkortu nintzen. Gero, etxera igo, eta oihukatu nion hori ezinezkoa zela, zu jaio ondoren basektomia egin nuela. Seme hori sendagilearena zela, ez nire. Berak ezetz eta ezetz, baina nik egia zela esan nion...

Ez dakit zer gertatu zitzaidan; neure senetik atera, eta paretaren kontra bultzatu nuen; ezin nuen horrenbeste gezur jasan.

Seme maite, zure amarengatik egin nuen basektomia, zure ama galtzearen beldur nintzelako, eta sendagile kirten horrek haurdun utzi zuen. Gainera, niri botatzen zidan errua... Egin nuenak ez dauka justifikaziorik, baina ziurtatzen dizut hortik aurrera ez niola sekula eskua gainean jarri. Beti errespetatu dut zure ama, eta oraindik ere maite dut. Gero, galdu egin zuen haurra; ez dakit nire erruagatik izan zen, edota haurdunaldiak berez konplikatu egiten direlako. Burua galdu zuen, bai. Zer nahi duzu nik egitea? Hori ere nire errua izan zen? Bada, nahi baduzu, bota errua niri, baina nik ez nuen zure ama sendagile ergel horrek bezala abandonatuta eta depresioen zuloan hondoratuta utzi. Askotan mozkortu nintzen, jada ez zidalako lehen bezala begiratzen, bere eromenean ere sasimediku madarikatu haren ferekak bilatzen baitzituen.

Nahi baduzu, bota niri gaitz guztien errua, baina nik maite zaitut eta maitatuko zaitut, eta zure ama ere bai, alkoholean igerian ibili arren"

Gutuna irakurri eta gero, Leopoldo hasi zen bere amaren gizona lagun guztiak gogoratzen, banan-banan, mesfidati. Azkenean, ez zuen aurkitu aita bezala amarengana hurbiltzen zen inor. Bere gurasoak elkar musukatzen ikusita zegoen, eta bere amak ez zuen sekula beste gizonik musukatu. Ez, bere ama ez zen ibiltzen aita ez zen beste inorekin; txintxoak zen bere ama.



Gutunak hilerrian

Amaren gutuna

14

Ahotsik ez zen entzuten ordurako. Haize leunak bakarrik apurtzen zuen isiltasuna, zuhaitzen hostoak dantza jarritz. Leku hartako lasaitasunak nolabaiteko interesa piztu zuen Leopoldoren baitan, lauza pitzatu horren azpian lurperatuta zegoen gizakiaz zerbait gehiago jakiteko irrikan. Mutikoak, zutitu ondoren, buelta bat eman zuen nitxoaren inguruan. Hara iritsi zenean, ezezaguna zitzaion han lurperatutakoaren bizitza; une hartan, ordea, pena sentitzen hasi zen, bizirik ez zegoelako. Berarentzat, hura jada ez zen hilobi arrunt bat; nolabait, hildakoa ezagutzen hasia zen.

Panteoiaren oinetan, zinta batez lauazari lotuta, hirugarren gutun bitxi bat zegoen. Leopoldok, ikusi orduko, jakin-minez hartu zuen. Hilobiaren gainean eseri, eta irakurtzen hasi zen:

“Senar eta seme maiteak. Zuen arteko gutun-trukean esku hartu eta barkamena eskatu behar dizuet. Lehenik eta behin, gure semeari, bihotz-bihotzez maite dudana horri. Sentitzen dut bizimodu kaskar hau eman izana, seme. Nire nahia, ama ororena bezala, zu munduko haurrik zoriontsuena izatea zen. Barkamena eskatu behar diot senartzat izan nuen gizonari ere. Askok maite izan zintudan, eta oraindik ere maite zaitut, nahiz eta iraganaren eta orainaren artean zalantza-uneak izan ditudan nire sentimenduetan.

Ezagutu zintudanean, ene senar, auto baten azpitik irteten ari zinen, ondo kontatu duzun bezala. Koipez beteta zeneukan aurpegia, begi bihurriak ikaraz beteta, eta lotsaren eraginez gorrituta zeneuzkan masailak. Itxura horrek goxotasun-ukitua ematen zion zure soin handiari, eta ezinezkoa zen zure begirada ausartak ni mintzea. Une horreta-

tik aurrera, ezin izan nituen begi beltz eta masail gorrixka haiek ahaztu. Egunero-egunero igarotzen nintzen zure tailerraren aurretik, noizbait begiratu ninduzun itxaropenarekin, eta zoragarri iruditzen zitzaidan irribarre egiten zenuenean zure aurpegiak hartzen zuen kolore gorrixka hura. Inoiz ez zitzaidan axola izan nire ama haserre zegoen edo ez; gure arteko harremana ez zen haren kontua, eta nik ez neukan berari tartean sartzen uzteko asmorik.

Tailerrera eraman ninduzun egun hartan, zure asmoa elkarrizketa atsegin bat izatea baino zerbait gehiago zela susmatzen nuen. Alde batetik, zalantzak neuzkan, gonbidapen hori onartu edo ez, eta, bestetik, irrikaz nengoen zure plazer-gurari guztiak asebetetzeko, horrekin nireak ere beteko baintuen. Onartu egin nuen zure gonbidapena, eta ez naiz inoiz arratsalde hartaz damutu, ezta damutuko ere; alderantziz: ziurtatzen dizut nire oroitzapenetan gordeta daukadala, eta nire bizitzako unerik zoriontsuenetako bat izan zela. Pena ematen dit ezin errepikatzeak.

Erditze txarra izan nuen, egia da. Inoiz ez nizun ezer esan, nire erabakiaren ondorioa izan zela pentsatu nuelako, eta ez nintzelako damu. Ezin nuen gaitzespenik onartu, bihotz-bihotzez nahi izan nuelako, eta oraindik ere nahi dut, horrek ekar zitzakeen arriskuen beldurrik gabe.

Gure semearen jaiotza ere nire bizitzako unerik zoriontsuenetako bat izan zen. Ez nituen nire familiaren nahiak aintzat hartu, Jainkoak eman zigun seme hau bezainbeste maite zintudalako. Bihotz-bihotzez eskerrak eman nahi dizkizut, zuri esker dauzkadalako nire bizitzako oroitzapenik onenak. Horregatik, negar egiten dut, eta egingo, zure heriotzaren aurrean, askok ulertuko ez badute ere... Zer axola zait niri! Maitasuna gu bion artekoa da; mundua ilundu egin da.

Haurra eztarriko minez zebilela-eta, kontsultara joan nintzen egun batean ezagutu nuen sendagilea. Altua zen, gaztea, itxura onekoa, oso gizon jantzia. Zer esango dizut nik? Kontsultan sartu nintzenean, goitik behera begiratu ninduen, eta atsegina iruditu zitzaidan hain gizon gailenak ni horrela begiestea. Konturatu egin zen eta irribarre egin zidan, eta nik berari ere bai. Keinuez haraindikoa ez zen harreman bat sortu zen gure artean, dibertitzen eta pozten ninduena. Baina zu zure asmakeriak baino ez zirenak leporatzen zenizkidan. Oso argi nuen ez nuela nahi zuk nire zintotasuna etengabe zalantzan jartzetik, eta are gutxiago zure jeloskortasunak nire bizitza baldintzatzerik. Horregatik, zure jarreraren aurrean asaldatuta, jarraitu

egin nuen nire irribarretxoekin, eta egunen batean kafea ere hartu nuen doktorearekin, ez baitzitzaidan iruditzen ezer txarra egiten ari nintzenik. Baina zuk behin eta berriz iraindu ninduzun, eta alkoholari ematen hasi zinen. Nola ez zintudan baztertuko, zure kirats nazkagarri horrekin, nire aurka biraoka aritzen bazinen eta gero ni musukatzen saiatzen bazinen, gu biok ezkontuta egoteak nire duintasuna errespetatu gabe ni edukitzeko eskubidea emango balizu bezala. Ez nengoen hori onartzeko prest. Zurekiko harreman txarrek doktorearen besoetara eraman ninduten. Bai bera eta bai ni ezkontuta geunden, eta bagenekien gairitu behar ez genituen muga batzuk zeudela. Egun batean oheratu egin ginen, bai. Zeharo damutu nintzen, eta atsegin eman nahi izan nitzun. Mozkortuta zeunden arren, zurekin amodioa egin nahi izan nuen, maite zintudala erakusteko. Nire gainean zeundela, doktoreaz gogoratzeko esan zenidan, gehiago gozatzeko. Baztertu egin nahi izan zintudan, bakean uzteko, eta nire indar guztiekin bultzatu nitzun, baina zuk behartu egin ninduzun. Begiak itxi eta negar egin nuen, zu gozatzeko ari zaren bitartean.

Egun zalapartatsu haietan, haurdun geratu nintzen. Ez dakit nork utzi ninduen haurdun, baina ez daukat jakiteko interesik. Haurdun geratu izana aurpegiratu zenidanean, esan nitzun haurra zurea zela, eta ez nitzun gezurrik izan, zurekin ere izan bainuen harremana. Basektomia egin zenue-la esan zenidan. Ez nitzun sinetsi. Nola sinetsiko nitzun, sendagileak beti preserbatiboa erabiltzen zuen-eta sexu-harremanak izatean? Behin eta berriro esan nitzun zurea zela, inoiz ez baitzenidan interbentzio hari buruz ezer esan. Nire burua hormaren kontra kolpatu zenuen, eta haurra ohetik altxatu zen. Ezin mingarriagoa egin zitzaidan sukaldedeko atean gure semea begira geneukala ikustea. Ohera joateko eskatu nion, eta egin nituen txorakeriez hausnartzen hasi nintzen, eta basektomia beharbada benetan egin zenuela pentsatzen.

Sendagilearengana joan nintzen, eta, haurdun nengoela esan nionean, bota egin ninduen kontsultatik. Ez ninduen gehiago ikusi nahi izan. Medikua aldatu behar izan genuen. Nire baitan hazten ari zen ume horren beldur izaten hasi nintzen. Gorrotatu egiten ninduzun eta egunez egun mozkortu egiten zinen, nire ekintzen zabarkeria aurpegiratuz eta ernatzen ari nintzen bizitzari uko eginez. Negar asko egin nuen garai hartan, eta gero eta erruduntasun handiagoa sentitzen nuen. Neure buruaz beste egin nahi izan nuen. Haurdunaldi orok dituen arriskuez jabetuta, nigan batez ere, egun batean sabela paretaren kontra kolpatzen hasi nint-

zen, nire indar guztiekin, hankartetik odoletan eta ahituta lurrera erori nintzen arte. Ospitalera eraman ninduzuen; haurra hilda irten zen, baina ni ez. Jasanezina zen niretzat zure gaitzespenarekin eta neure buruarekiko sentitzen nuen mespretxuarekin bizitzea. Horren guztiaren eragilea aingeru gaizto bat izan zela pentsatzen hasi nintzen: zuk basektomia egin zenuen eta sendagileak kondoia erabili zuen; beraz, espiritu makur batek ernatuko zuen nigan izaki hura, eta jaio baino lehen eraman nahi izan zuen. Ez zegoen beste erantzunik. Behin eta berriz arnegatzen nenbilen izaki zital misteriot-suarekin konplizitatean engainatu ninduen mediku gaztearen aurka.

Ziurtatzen dizuet, nire bizitzako gorabehera guztien artean, zuekin igarotako uneak direla gertatu zaidan ederrena. Hainbeste maite zaituztet... Nire arimaren barru-barruraino sentitzen dut zuekiko sentitzen dudak maitasunak eskatzen zuen mailan egon ez izana”.

Leopoldok gutuna irakurtzen amaitu zuenerako, hurbilago entzuten ziren bere izena behin eta berriz errepikatzen zuten ahotsak. Aldi horretan, ez zen ezkutatu. Iluntzen ari zuen, eta hilerria ez zen oso leku egokia. Begiak atzera itzuli zituen, azpian zeukan lauza zartatu hura ikusteko. Begiratu, eta sorbaldak jaso zituen. Ez zekin zer pentsatu. Bizitzak erokeriak eginarazten ditu beharbada, edo agian erokeriek eginarazten dute bizitza. Kontuak kontu, bera ziur zegoen bere gurasoek ez zituztela hain harreman mingarriak izan; berak, seme gisa, ez zeukan halakoak pairatu izanaren sentipenik. Baina helduen ika-miketarik baztertua sentitzen hasi zen. Azken batean, nolana ere, hildakoaren semea zen gurasoen arteko liskarren berri gutxien izan zuena.

Lauzatik jaitsi orduko, amak besarkada bat eman zion, airean altxatzen zuen bitartean. —Seme! Seme! Zuk ez daukazu errurik. Helduen kontuak dira. — Amarekin batera, aitak ere besarkatu egin zuen eta musu eman zion, esanez — Ezin dugu elkarrekin jarraitu, baina ez dizugu kalterik egin nahi. Ez duzu ulertzen? —

Mutikoak, gurasoei begiratu, eta panteoira itzuli zuen begirada. Ahapeka, esan zuen: —A zer saltsa! —.



PAGASARRIKO VI. IGOERA: MENDI BAT BAINO ZERBAIT GEHIAGO

1 ekaina, 2025 | por asociado

Ni bezalako batentzat, dagoeneko zortzi hilabete erretiroa hartuta eta Pagasarrira inoiz igo gabea, mendi-irteera hark pizgarri bereziak zituen.

Egia esan, jardunean zeundela beti gerorako uzten zenituen gauzen zerrendan egiteke zeuden gaiak berrikustean, Pagasarriko igoera zen horietako bat. Eta oraingoa aukera ezin hobea zen neure buruarekin zorra kitatzeko.

ASOJUBI BBK-k antolatutako PAGASARRIKO VI. IGOERA zen hura, eta haren buru Juanjo San Sebastian lankidea zen, zortzimilako batzuk egina. Bera gidari izatea zorte on handia eta pribilegio hutsa da gu guztiontzat, nahi ala ez, edozein gertakizunen aurrean seguruago sentiarazten gaitu eta. Horri gehitu gure atseginerako kontatzen dizkigun istorioak bai guztioi oro har, adibidez Bilbo industrialari eta Pagasarri buruzko pasadizoak kontatu zizkigunean; eta bai beste tarte batzuetan mendiarri lotutako bere bizi-esperientziari buruzko jakingura asetzen duzunean eta orduan ohartzen zara egun hartan bizi izandakoa bezalako jardunaldi batek duen balioaz.

Gainera, igoera hura Araceli Tamayo gure lankideari eskainia zen, betiko utzi baikintuen hark Afganistanen eraso armatu bat jasan ostean. Amaiera tragikoa, bai, baina Aracelik erakusten zuen sendotasun eta bizitasunaren emaitza, jarraera hark bizitza intentsitatez eta atseden barik bizitzeko aukera ematen zion, eta bere bidaietan eta edonon topatzen zituen pertsonen xehetasun handiak eta txikiak harapatzeko aukera ere bai, horrek izan zezakeen arriskua gora-behera. Haren izpiritu bidaiaria eta abenturazalea, oraingo igoera honetan laguntzailerik onena izan da gutariko bakoitzarentzat.

Eta Alonsotegitik abiatuta Pagasarrira igotzeak ere badu bere zera, ez baita ibilbiderik ohikoena. Izan ere, 9:00etan Bilboko Concordia (Naxa) geltokian geratu ginen, eta handik 9:20an abiatuta minutu batzuk geroago seigarren geltokira, Irauregi-Alonsotegira, iritsi ginen. Harritu egin gintuen konboiak Basurtuko Ospitaleko bigarren geltokira iristeko behar izan zuen denborak; izan ere, lerro zuzenean 2 km baino gehixeago dira, baina trenean askoz gehiago iruditu zitzaigun; segur aski, Ametzolatik igarotzen den lurpeko trazadurak itzuliguru handi samarra egiten du: jakingura dutenentzat ikertu beharreko xehetasuna!

Hogeita hamar bidaiari mendizale jaitxi ginen trenetik (urrutitik nabaritzen zitzaigun zer ginen) eta ia umezurtz utzi genituen aurrera jarraitu zuten bidaiari bakanak. Geltokitik irten, elkartu eta lehen zenbaketa egitea dena bat izan zen. Ondo hasi behar genuen, inor ahaztu barik, noski.

Izango genuen eguraldiak zelanbaiteko kezka sortzen zuen. Zerua erabat estalita zegoen hodei mehatxagarri. Gutxi-asko denok prestatuta gindoazen txarrenarako, eta motxiletan zirak edo aterkiak generamatzan zaparraden bel-dur. Zorionez, ez zen ur-tantarik jausi ibilbide osoan, ezta egun osoan ere, eta tenperatura, gainera, oso egokia izan zen egin beharreko ahaleginerako, haize leun batek lagunduta, bideaz gozatzeko aukera eman zigun eta.

Irteera-lekutik, geltokitik oso gertu, gogo biziz abiatu ginen gailurrerantz (673 metroko garaiera), eta lehen 300 metroak Azordoiaga auzoa eratzen duten etxeekiko paraleloan egin genituen, eta izen bereko erreka txikia ere zeharkatu genuen: historia duen erreka da, Juanjok esan zigunez, Bilbo Hiribilduaren fundazio-garaian On Diego Lopitz Harokoak Hiribilduaren mugatzat erreka hura ezarri baitzuen inguru hartan. Egunero ikasten da zerbaite berria.

Eta paseoa amaituta, benetako ibilaldia hasi zen; lehen metroetan inguruan izan genituen etheen ordean orain zuhaitz garai eta hostotsuak zeuden, eta zuhaitz haiek egun goibel baten argia iragazten zuten, guk geure ahots eta adorearekin benetan argitzen genuena. Bidea baso-pista moduko bat zen, aski zabala ibiltariok elkarriketa bizietan parte hartu ahal izateko; batzuetan bihurritu egiten zen eta beste batzuetan aldapa gora; horregatik eskertzen ziren sasi-lautada edo ordokien eremuak.

Zuhaiztiak, errekaak eta karkabak, iratzeak eta adarrak, lokatzak eta harriak, ... eta hegazti batzuk ere begira genituen pasarean; guk ez genituen molestetzen, errespetu osoz tratatzen genituen, haiek gu bezala. Dena ondo joan zen, agian, hori bai, aldapa batzuek eragina izan zuten ibiltarien erresistentzian, baina solidaritatez taldea ez sakabanatzen saiatzeko ginen, eta horrek Frantziako Tourra gogorarazten zidan, inoiz ulertzen errazak ez diren bizikleta-estrategia konplexu horiek, non aurrekoen atzetik joateak atzekoei pedalkada erraztu egiten omen dien; baina beldur naiz aldapa gora, bizikletarekin eta bizikleta barik, gure kasuan legez, horrek ez duela funtzionatzen eta ez zegoela batere kontsolamendurik atzean geratu nahi ez zuenarentzat.

Neurketa ofizialen arabera, gure ibilbidea 8,6 km-koa zen aterperaino, baina justu lehenago, Alonsotegiko isurialdetik gindoazela, eta 300 metro falta



zirela, azkenean Tarin iturriarekin topo egin genuen, eta han Udoi iturburuko ur freskoaren zurrustekin, gaur egun ere gure eztarriak zeharka ditzaketenak ihes egin ez dezan kate bati lotuta dagoen aluminiozko katilua erabiliz. Ai, katilu hark bere ertza musukatu dutenei entzundako guztia kontatuko balu!!! Eta goraxeago, metro gutxi baina alu samarrak eginda, eta gune hartako malda zorrotzagatik diot hori, "Pagasarriko hozkailu" ospetsuak daude, XVII. mende-koak, gaur egun izan zirenaren oroitza penagordetzen dutenak, baina ez jatorrizko erabilera, geroko aurrerapenei esker soberan gaunditua; edozelan ere, aitortu behar da garai hartakoen asmamena neguan jausten zen elurra izoztu eta kontserbatzeko; han bertan azalpen-kartel bat dago, 'hozkailu' haiek zelan eraiki ziren eta zer eginkizun izan zituzten azaltzen duena; puntu hau irekita uzten dut interesa duen irakurleak gaia ikertu dezan. Lekuaz baliatuz, oso antzinatek, baina bereziki industrializazio-garaitik, garaierak eta hurbiltasunak loturiko Pagasarri eta Bilbori buruzko xehetasun asko eman zizkigun Juanjo adiskideak: orduko bizi-baldintza zailak eta mendiak osasunarekin, eta Pagasarri bilbotarren osasunarekin, zuen harremana aurkitu zutenekoa.

Eta jarraian, unerik egokienean, gorputza ahaleginaren ahaleginez kexuka hasia zegoenean, basamortuan ispiatzeko bat bezala, Aterpea agertu zen, non zoragarri artatu baiktuzten, gure urdaila guztiak asebetetz: txorizo-ogitartekoa, ondo berotua, eta tortilla-pintxoak, bakoitzak aukeratutako edariarekin batera. Eserialdi bat, indarberritzeko eta gure gauzez berba egiteko, horixe izan zen egunaren gailurra. Talde osoa pozik eta animatuta zegoen etxera itzultzeko, orduan isurialderik ohikoenetik, Bilbora begirakotik. Bide batez, minutu batzuk hartu nituen Aterpea baino metro batzuk gorago igo eta ikuspegiaz gozatzeko, merezi du, eta egun garbi batean itzultzeko gogoz geratu nintzen.

Astia dago argazki batzuk ateratzeko, ibilbideko hainbat daude jada, baina oraingoak izango dira talde osoaren azkenak; izan ere, jaitsiera hasten denetik aurrera, erritmoa bizkortu eta bideak banandu egingo dira bakoitzak Bilbon duen helmugaren arabera, ez da guztion beste argazkirik egiteko aukerarik egongo, hainbat azpitalde eratuko baitira bide eta erritmo desberdinetan.

Pagasarrira igotzeko nire lehen esperientzia izan da, ziurrenik hain ohikoa ez den isurialde batetik, baina esperientzia oso atsegingarria izan da. Aldi berean naturaz eta lagunen konpainiaz gozaten den jardura bat egiteak ez du preziorik. Eta hori Pagasarri bezain gurea, bilbotarra eta sinbolismoz betea dagoen leku batean egitea oso pozgarria da, eta gainera gure arbasoei egindako omenaldi moduko bat ere bada. Ez naiz harritzen edizio honetan Araceli Tamayoren figura gogoratu izana, haren espiritu abenturazalea lagun izan baitugu ibilbide osoan zehar; horrela atera zaigu hain ondo!

Asojubiren Pagasarriko igoeraren VII. edizioan ere parte hartzeko izena emango dut. Irakurle guztiok espero zaituztet datorren urtean, ziur nago-eta Juanjok izango duela beritasunen bat gu guztion gozamenerako!

Agur!
jl.aguirre



17



Agur bero bat

15 otsaila, 2025 | por Javier Campo

Urrunetik igartzen zaio. Bere handitasunarekin, bere gorpuzkera baldresarekin. Urrats irregular eta baldarrekin dabil, xume eta trakets jantzita. Hurbildu ahala, zure begiek berezitasun bitxiak sumatu dizkiote, eta berezitasun horiek, hasiera batean, zur eta lur utzi zaituzte. Berehala konturatu zara zerbait ez dela ohikoa, hurbiltzen ari den figura hori ez dela gizaki gehienon parekoa. Bera desberdina da. Baina harrigarriena da berarekin gurutzatzen diren guztiak –izan jende asko, izan gutxi– banan-banan agurtzen dituela, haiekin geratu gabe. Eta ni ere, harekin gurutzatzean, agurtu egin nau. Nik, berriaz, egunero itzultzen diot agurra. Izan ere, lehen aldiz ikusi nuen egunetik harritu ninduen haren jarrerak.

Ez dakit zein izen duen ere. Egunen batean galdetuko diot. Baina agur hori, bitxia bada ere –egunero desberdina–, haren izaera bereziaren erakusle bat da, gaur egun nabarmenezko moduko bitxikeria bat. Beharbada, hain harrigarria iruditut zaidalako erabaki dut gertaera horren berri ematea. Izan ere, gizonak –oraingoz sine nomine– ez du besterik gabe «Egun on», «Kaixo, egun on», «Kaixo, zer moduz» botatzen agurtzeko. Aitzitik, egunero desberdin egiten du agurra: lehenik, eskuineko eskua altxatzen du, eta, gero, esaldi bat botatzen du, ikasi egin duena edo norbaitek apuntatu diona, auskalo. Esaldi laburrak dira, baina mezu sakonekoak: «Bakea izan dezagula gure artean», «Zure laguna izan nahi dut», «Denok denon lagunak izan behar dugu» eta horrelako esaldiak. Agurtu egiten du, baina ez da gelditzen; bere bidean jarraitzen du, motel, zurbil, beti erritmo berean. Bestelakoa izateagatik eta zerbait desberdina eta ustekabekoa egite hutsagatik oldarkorra –edo, gutxienez, axolagabea– dirudien mundu batekin komunikatzeko duen modua da. Agian, besteek onartzen duteneko sentipena bilatzeko modua izango da. Edo, besterik gabe, plazer hutsagatik egiten du, gustuko duelako; ez zaio batere kostatzen, libre sentiarazten duelako.

Ez dabil oso aspalditik auzoan; nik, behintzat, ez dut uste duela urtebetetik atzera inoiz ikusi dudarik. Hasieran, harekin gurutzatzen ginenok harriuraz begiratzen genion, gertakari xelege edo ezohiko baten aurrean bageunde bezala. Batzuek mespretxuz ere begiratzen zioten, eta haur nahiz

gazteek halako errukiz, pentsatuko balute bezala: «Zer du honek?».

Denborarekin, gizonaren ekintza erritual bihurtu da, eta jendeak erantzun egiten dio haren agurrari. Harekin hitz egiten geratu ere egin da baten bat –ni baino ausartagoa, jendearen intimitatean sartzea izugarri kostatzen baitzait–, zer moduz dabilen jakiteko asmoz. Denbora gutxian, auzoko pertsonaia eta hizpide bihurtu da; hainbeste, non, egunero haren agurra entzun ezean, haren falta sentitzen dudan.

Baina... garrantzirik ba al du gaur egun agurrak? Agurra keinu bat, hitz bat edo komunikatzeko beste edozein modu dela esan dezakegu, bi pertsonaren edo gehiagoren artean modu adeitsu eta atseginetan egiten dena. Besteekin erlazionatzeko modu ona da, eta hurbiltasuna erakusten du, neurri handi batean lagunekin edo besterik gabe ezagunekin, eta normalean mugitu ohi garen ingurunean besterik ez. Eta, beharbada, komunikatzeko modu berrien ondorioz, agurra galtzen ari da gaur egun, baita agur formala ere; zer esanik ez musu ematea, eskua ematea edo besarkatzea, pandemiaren geroztik. Kortesia erakusteko modu bat ere bada, nahiz eta urteak diren hitz horrek adierazten dituen erabilera eta forma erabiltzen ez direla. Nork erabiltzen du hitz hori gaur egun? Eta gutako zenbatek baliatzen du?

Latinezko esapideak oso gogoko ditudanez, oraingoan ere ezin alde batera utzi: gaztelaniazko saludo hitza, etimologiaren aldetik, latinezko salus hitzetik dator, eta osasuna esan nahi du. Horregatik, agurtzean, osasuna opa diogu besteari. Horrelako xehetasunek, denborarekin ohiko bihurtzean, galdut egiten dute beren zentzua, edo, hobeto esanda, lausotu egiten da haien esanahia. Pandemiak, noski, aldatu egin nahi izan ditu gure ohiturak zentzu horretan. Baina niretzat guztiz pozgarria da aspaldi ikusi gabeko adiskideari berriro besarkada bat eman ahal izatea, nire senideei musu bat edo bi eman ahal izatea, edo aurkeztu berri didaten lagunari bostekoa eman ahal izatea.

Eta, begirada erdi-galduta eta urrats zalantzatiak dituen arren, gizon hori gizon bihotz onekoa da, harekin gurutzatu ohi denari irribarre eragiten diona eta ezezagunei ustekabekoa begirada bat pizten diona. Baina, bere agurrarekin, nabarmendu egiten da, eta jendeak maitasuna ere hartzen dio. Egunero gurutzatu nahi dut nire bidean

P.S. Gaur, etxetik ogia eroatera atera naizenean, nire aurretik zihoan, eta bere parean jarri naiz. Agurtu egin nau, beti bezala, eta nik erantzun egin diot. Euskaraz galdetu diot zein izen zuen, eta hark ere euskaraz erantzun dit. Ez dut izena esango, bere intimitatea urratuko nukeelako. Fikziozko bat esango nuke, baina ez dut egingo. Nik nirea esan diot.

Etzera itzultzean, berriro ere berarekin gurutzatu naiz, eta agurtu egin nau, berriro ere, oraingoan nire izenez. Hemen-dik aurrera, nik ere bere izenez agurtuko dut. Nire mundu txikiaren parte da jada.

©Javier Campo



Luisen kontua

13 urtarila, 2025 | por Javier Ruiz de Villa

BEZEROEN KAPTAZIOA

Luisen kontua

Zein bitxia den historia erreala! Harrigarria da batzuetan elkarrizketa xume batetik anekdotak eta egoera bereziak nola sortzen diren. Halakoxea da lerro labur hauen bidez kontatuko dizuedana.

Amaitzear dagoen 2024ko abenduko igande arratsalde bat zen, euritsua, haizetsua eta hotza. Noizean behin, gure adiskide Luisen eta Nerearen etxean hainbat lagun elkartzen gara, txokolatea, txurroak eta beste hainbat janari goxo hartuz berriketan aritzera.

Oso atsegina da haiekin egotea, betiko lagunak baitira, aspaldikoak. Bizipen ugari partekatu ditugu, eta eroso sentitzen gara haiekin, erlaxatuta, lasai, ongi; etxean bageunde bezala.

Hasi da askaria eta hasi da solasa ere. Denetarik dugu mintzagai: iritsi dira Eguberriak; zer moduz zure ama, ehun urte bete ditu jada, bai itxura ona duen... Eta, horrela, gauza bat eta beste. Eta, halako batean, lagunak esan digu: Aizue, ba al dakizue nola egin nintzen ni Bizkaiko Aurrezki Kutxako bezero? Bada, ez, ez dakigu. Ea, esan, kontatu. Eta iritsi da erantzuna.

Behin batean, nire izekorik gogokoenetako batekin pa-seatzera irten, eta Zazpikaleetara hurbildu ginen. Han, parrokiaren tenpluen aldeko tonbola bat zegoen, urtero bezala, Bilboko Areatzan. Urte hartan boleto batzuk erosi genituen, eta sari bat irabazi genuen: Aurrezki Kutxan libreta bat irekitzea, 100 pezetako saldoarekin. Nik hamar urte nituen.

Libreta 1953ko urriaren 19koa da. Testua ez da ondo irakurtzen, baina honako hau jartzen du: "Batzarrari parrokiaren tenpluen alde tonbolako sarietarako emandako dohaintza".

Modu xume eta polit horretan egin zen nire lagun Luis Bizkaiko Aurrezki Kutxako bezero. Gerora, Udal Aurrezki Kutxako bezero ere izan zen, bizkaitar gehienak bezala. Denborarekin, bi erakundeek bat egitean, pixkanaka-pixkanaka kontu bakar batekin geratu ziren BBKn.

Hori bai zela kalitatezko marketin fina egitea: gurasoei priorik egin gabe, gaztetxoei opari gisa kontu bat irekitzea!

Dagokionak kontuan har beza. Urte berri ona izan deza-zuela.

19



Sekretua

4 maiatza, 2025 | por Fernando Urien

Ohea nahasita zegoen, mindirea habia txikitik zintzilik zegoen tapakiarekin korapilatua lurrean arrastatzeraino. Paretan, Leonardo DiCaprioren poster bat, Rafael Nadalen beste bat eta ohar batzuk itsatsita zituen kortxoeko taula bat ikus zitezkeen. Mutil baten argazki apurtua lurrean barreiatuta zegoen. Zoko batean, gona labur batez estalita, Nelyren hanka zuri meheak uzkuertzen ziren. Besoek inguratu eta gorputzaren kontra bultzatzen zituzten hankak, ezkutu eta ezerezean desagertu nahian bezala. Azazkalak urdinez margotuta zeuzkan eta ezpainak gorri lotsagabez. Gorritasun hark kontraste egiten zion aurpegiaren zurbiltasunarekin, zeina goitik behera begi hezeetatik abiatzen zitzaizkion erreka beltzez zeharkaturik baitzegoen.

Mari-purtzil bat legez, halaxe sentitzen zen, aitzak sarritan esana baitzion halakoen antza zuela. Isiltasuna haren sabelean uzkuertzen zen, eta buruan zituen ideia nahasiek ez zioten zerumuga garbi ikusten uzten.

Atearen heldulekuak biratzean egindako hotsak ez zuen irudi hezur-huts hura mugiarazi. “Ireki atea, Nely! Zertan ari zara?”, oihu egiten zion amak korridoretik. “Zer duzu, alaba? Ireki atea, urduri jartzen ari naiz etal”. Nelyk aurpegia igurtzi zuen; begietako pinturak zikinduta zeukala ikusita, amari “Itxaron apur bat” erantzun zion, “Utz nazazu bakean!” esan nahi balio bezala. Ispilura hurbildu eta musuzapi batez aurpegia garbitu zuen. Amak behin eta berriz esaten zion: “Zertan zabilta horrenbeste denbora?”. Bitartean, neskak, pausoa bizkortu barik, atea ireki zuen.

Amak, apurtutako argazkia lurrean, orbandutako zapia komodaren gainean eta alabaren aurpegi zikin desitxuratua ikusita, besotik heldu, pijama bat eman eta bainugelara eraman zuen alaba herrestan, dutxatu zedin. Bainugela hartan bertan hasi zen Nely bere gaitzen zati bat komun-zulotik botatzen.

–Zer gertatzen zaizu, alaba? Hartu bainu bat eta jantzi pijama, ez dut nahi zure aitzak horrela ikusterik eta.

Egun hartan neska ez zen afaltzera joan. Sukaldean, txarto zegoela esanez justifikatu zuen amak absentzia, eta egia zen. Nely ez zegoen afaltzeko moduan, hobe zuen atseden hartzea.

Biharamun goizean, neska goiz atera zen gosaltzera. Ez zuen aurpegia pintatuta, azkazalak motz samarrak eta margotu gabeak, galtza bakeroak, blusa estanpatua eta jertse ireki bat zituen soinean. Ez zuen asko hitz egin, baina ondo jan zuen. Ikastetxera joan aurretik, musu eman zion amari, eta aita eskuaz agurtu zuen keinu batekin.

Ikastetxean saiatu zen argazkiko mutilarekin topo ez egiten. Ez zen bere gelakoa, bi ikasturte goragokoa baizik. Hamazazpi urte zituen, berak baino bi gehiago. Galai hutsa neskaxa harentzat! Nelyk ondo zekien zer leku saihestu behar zituen harekin topo ez egiteko.

Arratsaldean saiatzen zen ikasgelan apur bat gehiago geratzen ikasteko, beste guztiak irten arte.

Arratsalde haietako batean, liburu bat irakurtzen ari zela, argazkiko mutila begira geratu zitzaion atetik. Hura han zegoela ohartzean, Nelyk liburura begiratu zuen berrit. Ez zen ezer irakurtzeko gauza, berari begira zegoela pentsatze hutsak urduri jartzen zuen. Mutil gaztea hurbildu egin zitzaion eta txartel bat utzi zion ikasmahaiaren gainean. Nely ez zen ausartu burua liburutik altxatzen. Ikasten ari

zen itxura egiten zuen, zentzurik gabeko berbak idazten zituen, edozein esaldi azpimarratzen zuen... begirada ezkutatzeko. Mutila ez zen tematu, eta gelatik irten zen astiro, noizean behin atzera begiratu, neska zegoen lekura.

Mutila desagertu zenean, neskak apur bat gehiago itxaron zuen, eta gero mahaitik altxatu eta liburuak batu zituen. Mutilak mahai gainean utzitako txartelari erreparatu zion. Hartu edo ez zalantzan egon zen, baina alde egin zuen, zegoen lekuan utzita. Etxera zihoala, prakek pixka bat gerria estutzen ziotela nabaritu zuen. Eskua sabelera eraman eta, esku-ahurra zabalik, igurtzi egin zuen, haren kurbadura neurtu nahian.

Iritsi zenean, aita egongelan zegoen telebista ikusten, ama sukaldean, afaltzeko jakiren bat prestatzen. Nelyk ozenki agurtu zituen: “Arratsalde on!”. Inork ez zuen erantzun. Ez zitzaion axola. Bere gelara igo, armairuak ireki eta zeuzkan jantziak atera zituen. Fresko samar egiten zuen arren, udaberriko eguzki-izpiak nabaritzen hasita zeuden. Gero, galtzak eta blusa erantzi zituen. Ispiluan islatzen zen gorputzari begiratu zion. Ederra iruditu zitzaion bere burua. Tripa laztandu ostean, bularrei erreparatu zien. Aurpegia pixkanaka goibeldu egin zitzaion. Ohean etzan eta uzkurto egin zen. Malko bakarti batek poema triste bat idatzi zuen haren aurpegian. Txolarre ar bat emea gorteatzen ari zen leiho-ertzean. Txorien txorrotzioak iristen zitzaizkion, baina ez zituen entzun nahi izan. Sukaldeko plateren hotsak eta telebistaren murmurio urrunak areagotu egiten zioten bakardadea. Aire hotza sentitu zuen larruazalean. Ohetik jaiki eta soineko estanpatu bat jantzi zuen. Eroso sentitzen zen. Flauberten “Madame Bovary” liburua irakurtzen hasi zen, Literatura irakasgaia gaunditzeko derrigorrez irakurri beharrekoa baitzen. Afaria prest zegoela adierazten zion amaren oihuak ustekabeen harrapatu zuen. Sukaldera joan, patata frijitu eta haragiarekin plater bat hartu eta desenkusatu egin zen, ikasi egin behar zuela esanez. Bere gelara itzuli eta, jaten zuen bitartean, irakurtzen jarraitu zuen. Eguzkia ezkututzen hasia zen. Itzalek irakurketa zailtzen zuten. Argia piztera jaiki zenean, ama atean zegoela ikusi zuen, berari begira.

– Kaixo, ama. Zenbat denbora daramazu hor?

– Zer ari zara irakurtzen?

– Madame Bovary, astelehenerako amaitu behar dut.

– Udako soinekoa jantzi duzu.

– Bero samar egiten du eta.

Amak, iluntzen ari zuela ikusirik, argia piztu, gelan sartu eta atea itxi zuen. Gero, alabarengana hurbilduz, ilea laztandu zion, eta, haren eskuak bere eskuen artean hartuta, jada apur bat deseginda zegoen ohearen gainean eseri zen. Orduan, ahapeka esan zion:

– Badakizu laguntzeko beti prest naukazula, ezta, alaba?

– Bai, ama, badakit.

– Zerbait jakin behar al dut?

Nelyk amaren eskuetatik atera zituen bereak eta leihora begiratu zuen. Gero, begietara tinko so eginez, ezpainetatik irteera kosta egin bazitzaion ere, “Ez” esan zion. Amak berrit hartu zitzaizkion eskuak. Laztandu egiten zitzaion, bere begiak Nelyren begietatik ken-

du barik. Alabaren begiak iheskorak, mesfidatiak eta erronkariak ziren; amarenak, berriz, ziur zeuden bazekitela zer ezkutatzen zuen behatzen zuten iris ilunak. Begiak apartatu barik, amak jarraitu zuen:

–Ikastetxetik deitu dute...

Nelyk, uzkur, aurpegia jiratu zuen. Azken aldian lan guztiak eguneratuta edukitzen saiatzen zen, garaiz iristen zen eta bere eginbeharrak betetzen ahalegintzen zen.

–...zure tutoreak esan dit txartel bat aurkitu dutela zure mahai gainean,...

Mutilari begiratzera ausartu ez bazen ere, hark utzi eta berak baztertu zuen txartel hura zen. Orain pentsatu zuen hobe zuela hartu eta bere ikastetxea ez zen beste edozein lekutako zakarrontziren batera bota izan balu.

–...haurdunaldia eteteko izapideak errazten dituen mediku batena.

Nelyk lurrera begiratu zuen berriro. Urdailean min bat sentitu zuen, hartu zuen afariaren hondarrekin bere barnean iraultzen ari zitzaiotena. Nahiago zuen batzuetan izaten zituen goragale haiek etorri baltitzaizkio, ihes egin eta komunera joan ahal izateko, baina oraingoan urdaila uzkuratu egin zitzaien, besterik ez.

– Zenbat denbora daramazu haurdun?

– Bost bat hilabete, uste dut. Umea izan nahi dut.

Alaba estudioko aulkian lur jota geratzen zen bitartean, ama leihora joan zen kanpora begiratzeko. Egia esan, ez zen ezer ikusteko gauza. Haren gogoa ez zegoen han. Egoera berria onartzen ari zen. Aldi batez isiltasuna mututasun bihurtu zen gela hartan, baina gero alabarengana hurbildu eta erabaki zuen:

– Ondo da. Inork ez du jakin behar haurdun zaudela. Batez ere, zure aitak ez du ezer jakin behar. Sekretu bat izango da gu bion artean. Zure eginbeharra ikasketak ateratzea da. Pentsatuko dut zelan konponduko dugun hau.

– Izango dut nire umea?

Amak begirada zorrotza bota zion. Gero aterantz joan zen erantzun barik. Baina ireki baino lehen, alabari begiratu eta esan zion:

– Oraindik neskato bat zara.

– Nire umea da! erantzun zion alabak, aulkitik altxatuz, sabela laztantzen zuen bitartean.

Amak goitik behera begiratu zion, keinu bidez aurpegiratu ezte hartara ekartzen ari zen arazoak. Gero, begietara so eginez, erantzun zion:

–Ez kezkatu ezertaz. Izango duzu zure umea..., baina ez esan inori, eta aitak ez dezala jakin... oraingo.

Ama joan zenean, atea itxi eta ikasmahaiaren aurrean eseri zen Nely, Flauberten liburua hartu... baina ezin izan zuen lerro bat gehiago irakurri. Sabela laztantzen zuen bitartean, poztu egiten zen; ziur zegoen izango zuela bere haurra. "Luis jarriko diot izena, eta ume osasuntsu eta alaia izango da. Bularra emango diot, biberioa baino hobe omen da eta. Amak abestu zizkidan lo-kanta berberak abestuz eragingo diot lo". Pentsamendu horiekin oheratu zen Nely eta lasai egin zuen lo, aspaldi egin ez zuen bezala.

Handik aurrera, ikasi eta gainera Nelyk puntuzko galtzerdiak, jakak edo txanoak egiten zituen. Semearentzat maindireak, lorde-zapiak, piqué edo kotoizko blusak... erosteko aurrezten zuen. Ertz metalikoak zituen kartoizko kaxa batean tolestuta gordetzen zuen dena. Denbora asko igaro baino lehen, beste kuxta bat erosi behar izan zuen. Ohean lo-kantak abesten zizkion semeari; haurrentzat musika ona zela esan ziotenetik, batez ere.

Ez zen sarritan gertatu, baina Nelyri behin edo behin goragaleak etorri zitzaizkion. Halakoetan amak kamamila prestatzen zion.

Ez zuen inoiz medikuarengana eraman. "Ez kezkatu, alaba, gauza hauek nik ezagutzen ditut eta. Zutaz erditu nintzen. Ez ote dut bada jakingo nik!" errepikatzen zion amak behin eta berriz.

Ekaina zen. Erditzeko hilabete bat eskas besterik falta ez zenean, Nelyren amak aitari esan zion Santa Polan zeukaten apartamentura joango zirela. Aitak ez zuen eragozpenik jarri, eta jarri izan balu ere, berdin zion, Nelyren amak zerbait erabakitzen zuenean, ez baitzegoen geldituko zuenik.

Santa Polako apartamendua txikia zen. Barruko patiora eta komunitateko igerilekura ematen zuten bi gela zituen. Nelyk eguzkia hartzera jaitsi nahi izan zuen, baina amak ez zion onartu:—*Estás muy delicada. Es mejor que te quedes en casa.*

– Oso ahul zaude. Hobe duzu etxean geratu.

– Baina «D» bitamina hartzea ona dela esaten dute!

– Egizu esaten dizudana, alaba. Ez dut arazorik nahi.

Neskatoa puntuzko eskularruak egiten ari zen umearentzat, lehen uzkurraldia sumatu zuenean:

– Badator, ama, badator!

Amak eskua alabaren sabelean jarri eta pixka bat itxaron zuen. Begiak itxi zituen arreata guztia jartzeko. Nely seguru sentitzen zen bere amarekin, eskarmentua baitzuen.

– Ez da ezer, alaba, uzkurdurak erritmikoagoak izan behar dituzu. Hartu eta bota airea etengabe pixka batean, eta hobeto sentituko zara.

Hala ere, bi ordu igaro baino lehen neska erotuta bezala hasi zen oihuka. Jendeak halako garrasiak entzun zitzaizkion beldurtuta, isiltzeko eta ohean etzateko esan zion amak. Zangoak irekitzeko agindu zion eta barrura begiratu zuen. Orduan, ahapeka esan zuen:

– B adator. Bultza, alaba! Bultza!

Neska izerditan hasi zen, ahaleginaren ahaleginez aurpegia puztan zitzaien bitartean. Amak eskuekin laguntzen zion umetxoari irteten. Nelyk garrasi bat edo beste egiten zuen, baina amak berehala isilarazten zuen. Beraz, garrasi egin baino gehiago, izerdia botatzen zuen, aurpegia larriminez itxuragabetuta, ezinbestean senperrenak eginez. Haurtxoaren negarra entzun zen. Nelyk maindireen gainean pausatu zuen haren gorputza:

– Uztazu pixka bat!

Izerditan blai zegoen. Seme txoa besoetan edukitzeko gogo bizia ageri zen haren begietan. Amak eman egin zion, maindireak aldatu eta alabari izerdia eta odola garbitzen zizkion bitartean.

Nelyk gorputz txikiaren pisua nabaritu zuen bere gainean. 'Luis' deitu zion, ahapeka. Orduan haurra isildu egin zen eta, bere ezpain samurrez, amaren bularra bilatu zuen. Eman zionean, emakume batek bizi lezakeen musurik samurrena sumatu zuen neskatzak bere seme txoaren ezpainetatik. Eta hurrupa egiten utzi zion, bera erlaxatu eta haurra lokartzen zen bitartean. Amak maindire garbiz estali zituen biak eta elikatzen utzi zion Luisi. Nelyk irribarre egiten zion amari, eguna isiotzen zuen distira begietan zuela. Gero, haurra lo zegoela, amak hartu egin zion alabari, garbitzeko eta janzteko. Neskak, umearengandik aldendu baino lehen, musu eman zion bekokian. Berehala, leher eginda, ametsek bildu zuten.

Esnatu zenean, gela txukun zegoen, ohea ondo egina, maindire zuriak... Han ezer gertatu ez balitz bezala. Amari deitu zion, eta hura laster sartu zen gelan, galdezka:

– Zer nahi duzu, alaba?

– Ama, ekarri umetxoa, nirekin eduki nahi dut eta.

Amak, zentzugabekeria bat entzuten ari balitz bezala, erantzun zion:

– Zer umetxo?

LA SIGUIENTE INFORMACIÓN ES SOLO PARA SOCIAS Y SOCIOS QUE TRIBUTEN EN BIZKAIA

(cuando tengamos el enlace de Álava y Guipúzcoa os lo mandaremos)

Estimado/a asociado/a,

El pasado 22 de abril se publicó en el Boletín Oficial de Bizkaia nº 75 la **NORMA FORAL 2/2025**, por la que se aprobaban medidas para la **revisión fiscal del sistema tributario del Territorio Histórico de Bizkaia**, abarcando entre otras cuestiones la reforma en profundidad de la normativa sobre previsión social voluntaria y, por lo tanto, **afectando notablemente al régimen tributario de las EPSV**.

En esta ocasión nos dirigimos nuevamente a socias y socios para adjuntaros un **enlace al "Gure Gida" información on line de la Hacienda de Bizkaia** disponible a la Ciudadanía en general, [https://www.bizkaia.eus/es/tema-plantilla/-/edukia/pl/7884/ogasuna/guregida/noticia.asp\[interrogacion\]idioma=CA&IdNoticia=900011121&Tem_Plid=7994115](https://www.bizkaia.eus/es/tema-plantilla/-/edukia/pl/7884/ogasuna/guregida/noticia.asp[interrogacion]idioma=CA&IdNoticia=900011121&Tem_Plid=7994115) donde vienen recogidas las Novedades tributarias aplicables a personas físicas NF 2/2025 desde este enlace puedes consultar la tributación que se aplicará a las prestaciones de las EPSVs a partir del 01/01/2026.

Seguimos a la espera de que se desarrolle por parte de la Hacienda de Bizkaia el necesario Reglamento, si bien con cada nueva información que se recibe se van despejando dudas. Adjuntamos esquemas, saludos



Elkarrizketak Elkartean

JUAN LLETÍ

20 apirila, 2025 | por Fernando Urien



24

Badakigu udazkena iristen denean gure bazkideentzat oso preziatua den eskaintza berezi batekin Valentziako laranja eta mandarinekin batera iristen dela.

Caprichos de la Naturaleza S.L. da enpresa, eta Juan Lletí da enpresaren burua, zentzu guztietan.

ASOJUBIBBK.

Lehenik aurkezpena. Nor da Juan Lletí?

JUAN:

Juan Lletí nekazari valentziar bat da, bere arbasoen tradizioari jarraitzen eta familiaren ondarea lantzen jarraitzen duena, eta hori, gure produktuak (laranjak, odolezko laranjak, limoiak, pomelo gorriak, mandarinak eta arroza) landatu eta hazteaz gain, berezitasun batekin: duela 15 urte erabaki genuen zitrikoak zuzenean azken kontsumitzaileari saltzen hastea; beraz, landatu eta hazteaz gain, egunero hartzen ditugu produktu horiek arbolatik, helduenak aukeratuz, eta gure bezeroei bidaltzen dizkiegu, bai Espainian, bai European.

ASOJUBIBBK.

Bide batez, kontaguzuz zerbait Caprichos de la Naturaleza, S.L. enpresaz.

JUAN:

Lehen esan dudan bezala, Caprichos sortu genuen gure zitrikoak gure bezero guztiei banatzen hasteko, eta azpimarratuko dut 'gure zitrikoak', hori oso garrantzitsua baita, gure gure uzta baino ez baitugu bidaltzen.

ASOJUBIBBK.

Laranjak eta mandarinak dira zure produktu mimatuenak. Has gaitzen fruta horien ezaugarriekin eta osasunerako

dituzten onurekin.

JUAN:

Gure nekazaritza-ekoizpenaren barruan, egia da laranjak eta mandarinak direla produktu mimatuenak, ia urte osoa ematen baitugu horiekin lanean.

Laranja C bitamina, flabonoide, azido foliko eta potasioa eta magnesioa bezalako mineralen iturri bikaina da. Antioxidatzaile indartsua da. Fosforoa ematen du, eta, kantitate txikiagoan, kaltzioa. Odolean kolesterol-maila altuak normalizatzen laguntzen du, pektina duelako.

"Ez ahaztu laranja kontsumitzea"

- . Hesteetako arazoak arintzen ditu, zuntz asko duelako.
- . Endekapenezko gaixotasunak prebenitzen laguntzen du antioxidatzaileak dituelako.
- . Nerbio-sistema indartzen du.
- . Hotzeriak saihesten laguntzen du.
- . Argaltzen eta likidoak atxikitzea prebenitzen laguntzen du.

ASOJUBIBBK.

Sar gaitzen xehetasunetan. Zure produktuen ohiko kontsumitzaile izanik, produktuen ezaugarri nagusiak adieraztea gustatuko litzaidake.

JUAN:

Lehen esan dugun lez, gure gure uzta baino ez dugu bidaltzen, eta hori oso garrantzitsua da, nik berma dezakedalako gure laranjek eta mandarinek ez dutela hondakin fitosanitariorik; izan ere, Europako Erkidegoko nekazaritza-politikak ezartzen dizkigun neurri zorrotz guztiak betetzen ditugu.

Gainera, produktu freskoak dira, egunero hartzen ditugulako arbolatik eta gure bezeroek 24 ordu baino gutxiagoan jasotzen dituztelako, horrela bitamina eta propietate guztiak mantenduz. % 100 naturalak dira, eta metodo tradizionalen arabera landatu eta haziak, kalitate-plus bat emateko.

ASOJUBIBBK.

Gogoan dut Valentziako lankide batek, duela urte batzuk, zera esan zidala: laranja oso distiratsuak eta denak berdinak zirela deigarrienak eta erraz merkaturatzeko modukoak, baina, aldi berean, ezelan ere ez onenak. Heltze azeleratuaz, argizari edo ezkoaz eta abarrez ere hitz egin didate, eta inportaziokoez ere bai. Zenbat egia dago horretan guztian?

JUAN:

Jakina, saltoki handiek egiten dutena da errazena eta merkeena, hau da, laranja hartzea heltze-mailarik onena izan barik, ganberan sartzea hondatu ez daitezen eta, interesatzen zaienean, salgai jartzea; ganberan artifizialki heltzen dira eta hozkailuak bezala kontserbatzen ditu, eta merkatura ateratzera doazenean argizaria jartzen diote edertu eta itxura polita emateko. Esan dudan bezala, hori da errazena eta merkeena.

Baina azken kontsumitzailearentzat ez da onena. Horregatik, gure lan egiteko modua laranja eta mandarina unerik egokien hartzeko da, ezelango produkturik aplikatu barik, horrela biharamunean azken kontsumitzailearengana fresko iristeko, naturala izateko eta propietate eta bitamina guztiak mantentzeko.

ASOJUBIBBK.

Mandarina-/laranja-barietate bakoitza bere garaian? Horrela bada, esaguzu, mesedez, zein mota dagokion sasoi edo aldi bakoitzari.

JUAN:

Hasieratik azpimarratzen ari naizen lehenengo gauza da gure laranja eta mandarina freskoa dela beti, moztan dugu-netik jasotzen duzun arte 24 ordu baino ez daude. Edozein dendatan edo saltoki handitan erosten duzun fruta orok ez du epe hori; horregatik, askotan esaten dut gure kaxako azkenak jaten ari zarenean ziur egon zaitezkeela edozein denda edo saltoki handitan erositakoen kasuan baino egun gutxiago igaro direla. Izan ere, hori, eskala handian, ezin da jasan denboragatik eta kostuagatik. Egia esateko, barietate asko daude, eta denboran mailakatu egiten dira, zuzenean zuhaitzetik hartutako laranja edo mandarina eduki ahal izateko denboraldi osoan.

ASOJUBIBBK.

Aurten ez dugu laranja-kaxen zozketa tradizionala egin gure bazkideen artean. Prestatzeak bere denbora eskatzen du. Horrekin esan nahi dut “zezenak harrapatu” gaituela.

JUAN:

Egia da, Dana-rekin eta beste denborale batzuekin dena atzeratu egin da pixka bat. Hutsune hori betetzeko, **konpromisoa hartzen dut 10 kiloko 2 kaxa oparitzeko hurrengo kanpainaren hasieran Caprichos de la Naturaleza enpresari egiten zaizkion lehen bi eskaerei.**

ASOJUBIBBK.

Juan, amaitzeko, errepikatu mesedez gure kolektiboarentzat egina duzun eskaintza.

JUAN:

Hasi ginenetik, gure produktuak kalitate handia eta prezio oso lehiakorra izateaz gain, Caprichos enpresak % 8ko deskontua egiten die elkarteko kide guztiei erosketa bakoitzean, baina kontuan izan gauza bat: kupoia jarri behar da erosketa bakoitzean.

ASOJUBIBBK.

Azken hilabeteotan gora egin du elikaduraren BEZak. Eragirik izan al du zitrikoen kontsumoan?

JUAN:

BEZaren bi igoera izan ditugu prezioa jarri genuenetik, KPlaren igoera aparte: BEZaren lehen igoera 24ko azken hiru hilekoan izan zen, eta gero 25eko urtarilean berriro igo zen % 4raino, eta bai BEZaren bi igoerak, bai KPlaren igoera, Caprichos enpresak bere gain hartu ditu, 24-25eko denboraldia hasi zenetik prezioari eutsi baitiogugu, nahiz eta orduan % 0koa izan BEZa

ASOJUBIBBK.

Eskerrik asko, Juan, zure denboraren zati bat guri erantzuten emateagatik. Espero dugu kanpaina ondo amaitzea eta datarren urtean ere zurekin lankidetzan jardutea.

**JUAN.
Zuei eskerrak.**



behiek ez dute adarririk

25 apitila, 2025 | por Juan Carlos ruiz de Villa

1960ko uda zen, eta nire familia opor-egun batzuk igarotzen ari zen landan herri batean. Hango jende gehienak behi-azienda hazten zuen, batez ere esnetarako behiak. Gure etxetik gertu, abeltzaintzako familia-ustategi haietako bat zegoen, hamar eta hamalau behi artean izaten zituena gehienetan.

26

Ni orduan hamar urteko mutikoa nintzen, bihurri samarra eta itxuraz beldur bakoa, eta kortara hurbildu eta behiei zelan jaten ematen zieten, zelan jezten zituzten... ikus-tea gustatzen zitzaian. Egun haietako batean, kortatik kanpo, hainbat pertsona zeuden eskortan, denak helduak, eta bat-batean haietako batek esan zidan: "Ezetz ausartu adarra zuzenean ukitzera hor barruko behi horri!". Erronkak niri? Azkar erantzun nion: "Bai horixe!". Baina berehala sartu zitzaidan beldur eta errespetu apur bat. Guztiak begira nituen. Hortaz, aska artean aurrera joan nintzen pixkanaka behi arriskutsu harengana hurbiltzeko, pertsona guztiak niri begira eta irribarrez zeudela nabaritzuz. Kontu handiz nindoan aberearengana, neure artean esanez: 'Zer ote dauka behi horrek hain berezia izateko eta, itxura batera, zuzenean adarra ukitzera inor ez ausartzeko?'. Behiaren ondora iristean, besoa luzatu, eskua luzatu eta... zuzenean adarra ukitu nion! Behin, birritan eta hirutan! Baina badaezpada ere azkar alde egin nuen handik.

Kanpora irtetean, esan nien: "Egin dut, adarra zuzenean ukitu diot eta hiru aldiz gainera!". Baina ohartu nintzen denek irribarre egiten zutela, harik eta gizon haietako batek, armairu bat bezain garaia eta handia zenak, esan zidan arte: "Zuzenean ukitu dioala? Okerrean ukituko hioan, bi adarrak okerrak dizkik eta!"

Orduan irribarreak barre-algara bihurtu ziren, zur eta lur geratu nintzen, eta ohartu nintzen abere arriskutsu haren aurrean bizia arriskatzeko behar izan nuen ausardia guztia adarra ukitzeko izan zela, bai, baina heldu haiek niri adarra jotzeko ere bai!

Gaur egun, urte batzuk gehiagorekin eta birbiloba zoragarririk batzuen aitaita izanik, uste dut ez dela horrela jolastu behar ume baten inozentziarekin.

Beste egun batean, belardietan nenbilen, argi eta berde dotoreko, etzatera eta zelaiko eta zeru goiko bakeaz gozatzerako gonbidatzen zaituzten egun zoragarri horietako batean. Lasai-lasai nindoala, gizon batzuk eta emakume bat ikusi nituen, bigantxa gazte bat geldiarazi nahian. Zer egiten zuten ikustera hurbildu eta galdetu nien: "Zergatik geldiarazten duzue?". Erantzun zidaten: "Adarrak kendu behar dizkiogu, eta orain, txikerra denez, errazago egiten da eta gutxiago sufritzen du". Ni ez naiz landa-gizona, eta ezin dut iritzirik eman ezagutzen ez ditudan gauzei buruz, baina sumatzen nuen hura gogorra izango zela. Ausardiaz bete eta begira geratu nintzen, txarto pasatuko nuela iruditzen zitzaidan, baina baita ere bigantxak okerrago pasatuko zuela. Hasi zen ikuskizun gogor eta odoltsu hura: gizon batzuek txahal txikerrari geldi eusten zioten bitartean, beste batek sopletez tresna bat berotzen zuen, sagarrei zuztar edo mutxikina kentzeko horietakoa bezalakoa, baina diametro zabalagokoa. Gori-gori eduki zuzenean, al baitaria zirudien beste gizon bati pasatu zion, eta hark bigantxari adarraren inguruan sartu zion, eta buruarekin palanka eginez adar bat atera zion aurrea, eta gero bestea, eta gori-gori zegoen gailuarekin inguru guztia erre zion zauriak kauterizatzeko eta ez infektatzeko. Bigantxari jaregin ziotenean, alde guztietara ostikoak emanez irteten zion jautzia, eta ez zen gutxiagorako! Prozesu osoa azkenerraino ikusi nuen, basakeria hutsa iruditzen zitzaidan, eta triste eta zorabiatuta, txarto geratu nintzen.

Ez naiz landa-gizona, eta ez dakit asko animaliez, ez dut haiekin inoiz lan egin. Baina jakin badakit gaur egungo ume batek ezingo liokeela behi bati zuzenean adarra ukitu, ezta okerrean ere, oraingo behiek ez baitute adarririk.

Betiko maitasunarekin...

Udazkenerako bidaia eskaintza (2025)



18 apirila, 2025 | por asojubi

Nuestro colaborador habitual, Viajes Ikea, S.L., ha puesto a la venta con CONDICIONES ESPECIALES para nuestros/as afiliados y afiliadas tres viajes con diseños especiales a realizar en el próximo otoño.

Estos viajes están pensados para TODO EL COLECTIVO con independencia de su lugar de residencia y punto de partida más conveniente para sus intereses.

JAPÓN: 21-octubre (14 días)



Destacamos:

- Grupo de 16 personas.
- Todos los viajes en tren.
- Acompañados por personal desde Bilbao

CHILE: 25-octubre (17 días)



Destacamos:

- Espectacular viaje desde Bilbao o Madrid
- visitando San Pedro de Atacama, Santiago de Chile, Puerto Varas, Puerto Natales, Torres del Paine y un magnífico crucero de 4 días por los glaciares chilenos
- Con nosotros, en grupo reducido
- Con el Crucero Skorpions en la Ruta Kaweskar
- Desde el desierto de Atacama hasta la Patagonia

27

INDONESIA 6-noviembre (19 días)



Destacamos:

Un viaje increíble, en grupo que va a mostraros que Indonesia es mucho más que solo Bali

Java

Yogyakarta – Borobudur – Bromo

Comenzaremos por la Isla de Java descubriendo templos y naturaleza deslumbrante

Sulawesi

Makassar Rantepao – Toraja

Una isla que tiene quizás la vegetación más increíble junto con unos monumentos únicos

Bali

Ubud – Candidasa – Nusa Dua

Poco se puede decir de Bali que no se haya leído o escuchado pero vamos a ver zonas no tan exploradas

Para más información, ponerse en contacto con Viajes Ikea, S.L., Henao., 33. Bilbao. Teléfono 94 4230657.

El viaje y su realización está bajo la responsabilidad total de Viajes Ikea, S.L., habiéndose limitado nuestra Asociación a negociar condiciones más favorables para nuestro colectivo.



Bbk-ko jubilatuen eta pentsiodunen elkarte

**Principe kalea, 5. dpto. 505
48001 BILBO
Tel. 94 425 57 96
asojubibbk@gmail.com
www.asojubibbk.es**

